



hiruka

Uribe Kostako astekaria



91. zenbakia

2017ko
apirilaren 7tik
apirilaren 26ra arte



20. ^{3ek} korrika

Egundoko ilusionistak

20. Korrika Uribe Kostan izan zen apirilaren 5ean eta 6an. ARGAZKIAK: HODEI TORRES



ADI! HURRENGO
HIRUKA

apirilaren 27an plazaratuko
dugu, hiru eguen barru.



Berdintasun-plana, martxan

Datozen lau urteetarako berdintasun politiken zeharkakotasuna bermatzen duen ibilbide-orria izan gura du onartu berri den Berdintasunerako IV. Planak.

Getxoko Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana aurkeztu zuen pasa den egunean, martxoaren 23an, Algortako Fadura kiroldegian. IV. Plana joan den otsailaren 22ko osoko bilkuran onartu zen, eta 2017-2020 bitartean egongo da indarrean. Bere helburuen artean daude emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzea, eta, batez ere, gizarte «parekideagoa eta bidezkoagoa» lortzeko lanabesa izatea, udal-iturriek azaldu dutenez.

Getxoko «Emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa» egin zuten lehenengo, eta ostean idatzi dute IV. Plana. Diagnostiko hori Berdintasun Kontseiluagaz partekatu dute, eta horrenbestez, udal taldeakaz ere bai; baita emakume elkarteakaz eta talde feministakaz ere. Getxoko emakumeek eta gizonek gaur egun bizi duten egoeraren irudia «ahalik eta osatuena» edukitzeko balio izan du diagnosti-

koak. Ikerketa horren emaitza izan da IV. Planaren abiapuntua. Planak atzemandako beharriari, arazoei edo hobetu beharreko alor guztiei erantzun egokia emateko balio duela, eta egokitzat jotzen diren ekintzak sustatzen jarraitu ahal dela bermatzeko asmoz egin dela azaldu dute.

Hurrengo lau urteetan garatuko duten plan hori urtero ebaluatuko dute; izan ere, berdintasun politiken zeharkakotasuna bermatzen duen ibilbide-orria izatea gura dute. Hartara, esku hartzeko lau ardatz ditu: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako gobernantza, emakumeak parte-hartze soziopolitikorako eta balioak aldatzeko ahalduntzea, antolaketa sozial erantzunkidea, eta emakumeen aurkako indarkeria bako bizitza. Ardatz bakoitza bi programatan banatzen da, eta horien helburuak betetzeko, 99 neurri proposatzen dituzte. Horien guztien zehaztasun denak ikusi gura dituenak txosten osoa irakur-



Joan den martxoaren 23an aurkeztu zuten IV. Plana, Fadura kiroldegian.

dezake, Udalak bere webgunean ipini duelako, PDF formatuan.

Berdintasunerako ibilbidea

Orain dela ia 20 urte ekin zion Getxoko Udalak berdintasun-politiken ibilbideari. Izan ere, 1999an osatu zen Berdintasunerako I. Plana. Ordutik plan hori egokitu eta berriak sortzen jardundu Udalak. Bide horretan, hainbat dira emandako aurrerapausoak, ber-

barako Jabekuntza Eskolaren sorrera, 2004an; ikastetxeetan indarkeria aurreikusteko tailerrak martxan ipintzea, 2007an; informazioaren eta sexu-aholkularitzaren zerbitzuaren sorrera, 2010ean; Berdintasun Kontseiluaren sorrera, 2011n; eta emakumeen aurkako indarkeriazko kasuetan erantzun publikoa emateko protokoloaren onartzea, 2016an. ◀

info+: www.getxo.eus



Getxo
ezagutzeko
ibilbideak



BETIKO GETXO

EKAINAK 5, ASTELEHENA. 18:00-20:30.
17, ZAPATUA. 09:30-12:00.
URRIAK 4, EGUAZTENA. 18:00-20:30.

GETXO BARRIA

MAIATZAK 27, ZAPATUA. 09:30-12:00.
EKAINAK 14, EGUAZTENA. 18:00-20:30.

PUNTA BEGOÑA

EKAINAK 10, ZAPATUA. 09:30-12:00
URRIAK 21, EGUAZTENA. 18:00-20:30

GOGORATU:

- Jantzi eta oinetako erosoak ekarri.
- 2-3 ordu inguruko ibilbideak.

HEZEGUNEAK

APIRILAK 29, ZAPATUA. 09:30-12:00.
MAIATZAK 22, ASTELEHENA. 18:00-20:30.

KOSTALDEKO GETXO

MAIATZAK 13, ZAPATUA. 09:30-12:00
31, EGUAZTENA 18:00-20:30.
URRIAK 17, MARTITZENA. 18:00-20:30.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

www.getxo.getxo.eus/eu/euskara
www.bizarralepoan.eus

IZENA EMATEKO:

688 635 350. Bulego orduetan.
getxo.toponimia@gmail.com
www.getxokotoponimia.blogariak.net



Txoritokitik

IÑAKI
ZARRAOGA ZABALA
Getxoko alkate ohia

Izan zirelako gara eta garelako izango dira

Martxoaren 26an jeltzaleok BECen frankismoaren ondorengo lehen Aberri batzarraren 40. urteurrena ospatu genuen. Garai hartan jeltzaleok erabakirik zailenak eta garrantzizkoak hartu behar izan genituen eta gaurko egunetik begiratuta, akatsak akats, asmatu zela argi dago. Alderdia oso indartsu agertu zen eta berari egokitu zaio lau hamarkada hauetan euskal politikaren lidergoa, batez ere Autonomi Elkargoan.

Belaunaldi askotako jendea elkartu ginen, baita duela 40 urteko protagonistak eta gaur egungo buruzagiak ere. Gure alderdian bi arima omen daude, eta batzuetan halaxe agertu dela ukatu gabe, BECeko ekitaldian denok arima bera izan genuen. Alderdi abertzale, independentzia zalea, arlo sozialean dauden arazoak konpondu nahi duena, nazio- eta pertsonen askatasunen aldarrikaria, erabakitzeko eskubidearen asmatzailea eta sustatzailea.

Arestian hartutako erabakiak onura handiak ekarri dizkie euskal herriari eta euskal herritarrei. Askoren artean bi aipatu nahi ditut. Autonomiarik gabe, kontzertu ekonomikorik gabe, ze etorkizun izango genukeen jasan genuen lehen krisi ekonomikoan? Labe garaien, ontziolen eta ekipo-ondasunen sektoreak, gure industriarik garrantzitsuenak, behera etorri zitzaizkigun. Eta euskarak ze etorkizun izango zukeen gure erakunde propiorik gabe?

Orain erabakitzeko eskubidea gauzatu dadin ari gara lanean, laster Getxon gure iritzia emateko aukera izango dugu denok. Hor egongo gara jeltzaleok, beste askorekin batera. Estatutua bultzatu genuenean, argi utzi genuen hori ez zela gure azken helburua. Orain beste pauso bat eman nahi dugu. ◀

Getxo

Balio askotariko gunea gura dute Bentan

Gunea kudeatzeaz arduratuko diren agenteen eta Udalaren arteko harreman-eredua diseinatuko dute laster.

Benta eraikinean balio askotariko gunea egitea proposatu dute Getxoko auzokideek. #BentaraNoa herritarren partaidetza-prozesuaren lehenengo fasea amaitu da, hala jakinarazi du Amaia Agirre Getxoko Komunikazio eta Herritarren Partaidetzarako zinegotziak. Lau hilabete iraun duen fase horretan, Benta eraikina zertarako erabil daitekeen proposatu diote herritarrek Udalari; 95 pertsonak parte hartu dute, 200 proposamen baino gehiago batu dituzte, eta ondorioak ere jasota dituzte daborduko. Urtarrilaren 21ean egin zuten azkeneko saioa; ondoren, proposamen horiek denak hainbat kontzepturen arabera banatu dituzte. Benta eraikina «balio askotariko gune barneratzailea eta belaunaldien artekoa» sortzea

info+: www.hiruka.eus/getxo.

da helburua; «malgutasuna eskainiko duena bertan ezagutza eta esperientziak partekatu ahal izateko». Prozesuan parte hartu duten pertsona horiek honako hau eskatu dute: «Guneak auzoaren identitate-balioak erakutsi behar ditu, batez ere euskararekiko

eta lehen sektorearekiko harremana». Lehenengo fasea amaitu ostean, Udala lanean dihardu proiektua «errealitate bihurtu dadin». Bigarren fasean, gunea kudeatzeaz arduratuko diren agenteen eta Udalaren arteko harreman-eredua diseinatuko dute herritarrek. ◀

Euskara ikasteko 70.360 euro banatuko ditu aurten Udalak

Euskara sustatzeko urteroko egitasmoa 70.360 eurogaz bultzatuko du aurten Getxoko Udalak. «Laguntza horiekin Udalak gure hizkuntzaren normalizazioaren aldeko apustua eta konpromisoa mantentzen ditu helburu batekin, hau da, euskaraz bizi nahi duen pertsonak hori egin ahal izatea», azaldu du Koldo Iturbe Euskara zinegotziak. Zenbateko horretatik, Udalak 63.360 euro banatuko ditu euskara ikasteko norbanakoei zuzendutako diru-laguntzen artean, eta beste 7.000 euro enpresei bideratutakoen artean. Laguntzok eskatu ahal izateko, familia-unitate bakoitzaren diru-sarreretan gehieneko muga bat ezartzen du Udalak; bada, aurten, muga hori altuago da. Eskaerak irailaren 30era arte egin ahal izango dira. Iaz euskara ikasteko 163 laguntza eman ziren; beste 36 gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egiteko; 1 aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko, eta 30 errotilu eta elementu ipini ziren euskaraz (horien arteko 18 euskara hutsean). ◀

Bosgarren edukiontzia ipintzen hasi dira

Gai organikoak batzeko edukiontzia ipintzen hasi da Getxoko Udala. Horren harira, informazio- eta kontzientziazio-kanpaina bat egingo du, ezagutarazteko edukiontzia hori erabiltzeko modua, zein hondakin utz daitezkeen eta zer onura dakartzan. sukaldean edo lorategian sortzen diren hondakin biolo-

gikoak edo landare jatorriko zarama organikoa birziklatzeko erabiltzen da bosgarren edukiontzia, Udalak azaldu duenez. Horiek erabili ahal izateko, zerbitzuan izena eman beharra dago. Kanpainaren eginkizun nagusia da birziklatzeko materiala banatzea edukiontzia erabili gura duten guztien artean. ◀

info+: 944 644 380 / www.getxo.info-cti.es

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

Getxo

Turismoaren arloan erreferentzia izan gura du Getxok

Getxo erreferentziatzeko helmugatzat finkatzeko lanean jarraituko duela adierazi du Udaleko Turismo Arloak. Horretarako, udalerriko baliabide turistiko «nagusiak» bultzatuko ditu, berbarako Portu Zaharra eta Ramiro Pinilla idazlearen ibilbide literarioa. Modu berean, produktu berriak sustatuko ditu, merkatuetan helmuga turistiko gisa Getxok duen presentzia sendotzeko lan egingo du (Interneten, batez ere), leku-ko enpresa turistikoakaz elkarlanean ibiliko da eta Getxo udalerriri irisgarria izan dadin lan egingo duela iragarri du.

Getxoko hoteletako 2016ko betetzemaita eta batez besteko egonaldietako datuak 10 urteotako onenak izan direla jakinarazi du Udalak. Izan ere, joan den urtean, okupazio-maila % 70ekoa eta % 79koa izan zen (hoteletan eta pentsioetan, hurrenez hurren), eta turisten batez besteko egonaldia 2,55 egunekoa izan zen. ◀

Amaitu dituzte Fadurako zubi berria eraikitze lanak

URAREN Euskal Agentziak behin betiko zabaldu du Algortako Fadura kiroldegiaren ondoko zubi berria, ibilgailuen trafikorako ere bai. Zubi berriak 18 metro luze eta 13 metro zabal ditu; 5 metroko galtzada eraiki da bertan, oinezkoentzako bi espaloi ditu eta 3 metro zabaleko bidegorria ipini dute. Hormigoi armatu aurreatezatzuzko habeez osatuta dago. ◀

Herri-galdeketaarako bidea prestatzeko lanak, martxan

Getxoko Gure Esku Dagok batzorde sustatzaile «plurala» aurkeztu zuen apirilaren 6an, egunean, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Talde horrek hartuko du honako hauen ardura: herri-galdeketaaren prozesua antolatzearena, sinadura-bilketaaren jarraipena egiterena, galdeketaaren egutegia finkatzearena, galdera zehazteko prozesua antolatzearena eta kontrol-ba-



Gaur egun martxan dauden proiektuen berri emango dute urteurren berezi horretan.

Txorimalok «1.1garren» urtemuga ospatuko du

Apirilaren 20tik 22ra bitartean izango da Getxoko gune autogestionatuaren urteurrena; berezia izango dela diote.

Daborduko 11 urte igaro dira Getxoko Faro errepidean kokatuta dagoen baserria okupatu eta Txorimalo gaztetxea sortu zutenetik. Harrezkerotik hamaika dira bertan egindako ekimenak eta bizitako bizipenak. Algortako Gazte Asanbladak kudeatu izan du urte luzez gune autogestionatua; hala ere, azken bi urteetan bestelako bidea hartu du gaztetxeak. Gazte asanblada desegin zuten eta herriari zabaldu zizkieten eraikinen ateak; hala, orain askotariko proiektuak garatzeko eta dinamizatzeke gunea da Txorimalo. Hori dela eta, bide berriaren erakuslehoi izateko, 11. urteurrenari 1.1 izaera esleitu diote gazteek. Hala, apirilaren 20an ekingo diote ospakizunari, egunenagaz. Egun horretan

pregoia irakurriko dute Algortako San Nikolas plazan, 19:30ean. Ondoren poitea egingo dute kalerik kale. Hurrengo egunean, barikuan, tailerrak egingo dituzte gaztetxean, 18:00etatik aurrera. Ordubete beranduago Txorimalo Musika Faktoriaren inguruan berba egiteko aukera egongo da. Ondoren, Oliver Magoak magia ikuskizuna eskainiko du, 22:00etan, eta ostean musikaz gozatzeko aukera egongo da. Ospakizun nagusia zapatuan izango da, hilaren 22an. Goizeko 11:00etan helduko diote egitarauari, ortuaren proiektuaren tailerragaz; 12:00etan pintxo txapelketa egingo dute eta, destilategia aurkeztu ostean, bazkaria egongo da. Iluntzean, jolasak, kontzertuak eta «plater irekiak» egingo dira, besteak beste. ◀

Urteko lehen esku hartzeak hasi dira Begoñako galerietan

Begoñako galeriei balioesteko hainbat lan egingo dituzte aurten, esaterako igogailu panoramiko bat ipini, areto nagusia irazgaiztu eta sabai faltsuak eskoratu. Horrez gainera, aretoaren beheko eremuko sarbidea aurkitu dutela jakinarazi dute arduradunek, «ezusteko handia izan da gune hori aurkitzea, planoetan ez zelako ageri». Eremu horrek areto nagusiaren antzeko neurria du, eta apirilean hasiko dira bertara sartzeko bidea lantzen. Etorkizunean, leku hori galerietako aurkikuntzak eta jarduerak azaltzeko erakuslekutzat erabili gura dute. Hori dena jakitera emateko asmoz, webgune berri bat martxan ipini dute, orain dela aste gutxi. ◀

info +: www.puntabegona.eus

Etxebizitzaren alokairurako gazteentzako diru-laguntzak handituko dituzte

Gazteek etxebizitza alokatzeko laguntzetarako 250.000 euroko kreditu gehigarria onetsi du Getxoko Udalak; Gobernu-taldea (EAJ eta PSE-EE),

EH Bilduk eta Ciudadanosek horren alde eman zuten botoa. Laguntza horien helburua da gazteei babes ematea beren emantzipazio-prozesuan. ◀



Sarritik Borobiara

PAUL BILBAO SARRIA
Kontseiluko Idazkari Nagusia

Tipi-tapa, tipi-tapa, tipi-tapa!

Hor dabil, aurreko ostegunetik, tipi-tapa, tipi-tapa. Honez gero, zortzi egunez eta gauzez gelditu barrik. Euskararen aldeko mugimenduen erakuslehorik handiena Euskal Herria, hegotik iparrera, ekialdetik mendebaldera zeharkatuz doa, etzi Iruñera iritsi arte.

Zapatila berririk, modernorik, berezirik ez da behar euskararen aldeko lasterketan parte hartzeke. Ez dago derrigortasunik kilometro kopuru zehatza egiteko. Are gehiago, bada lasterka egiten ez duenik, eta errepide-bazterrean txaloen zein animoen bidez parte hartzen duenik.

Duela lau urte *euskalakariak* ginelako egin genuen korrika; duela bi, *euskahaldun* bilakatu nahi genuelako; orain, *BatZuk* izan nahi dugulako. Izan ere, Euskal Herri euskalduna helburu dugunok askotariko mundua dugu amets. Euskaraz bizi nahi dugunok justizia besterik ez dugu aldarrikatzen, eta justizia egoteko euskaraz bizi nahi dugunoi eskubide hori bermatu behar zaigu.

Halere, Korrikak badu beste osagai garrantzitsu bat. Euskarara etortzeko gonbidapena egiten du, finean, euskaldun bihurtzea gizarte kohesionatugoaren aldeko keinua egitea da.

Buruan iltzatuta ditut duela bi urte Bilbon Lorea Agirrek esandakoak: auzia ez dela izan ala ez izan, kontua ekitea dela. Bai, benetan ekiten diogunean, euskara plaza erdira ekartzen dugunean, lortuko dugu euskararen geroaz hitz egin behar ez izatea.

Duela lau urte Baionan Amets Arzallusek gogorarazi zigun herri hau euskaraz pentsatu behar dugula, edo ez dela izanen; alegia, hautatzen diogun ama-hizkuntzaren arabera dagoela gure herriaren geroa. Hauta diezaigun, bada, euskara ama-hizkuntza, herri hau herri izan dadin.

Mundu unibertsalagoa egiteko Bat egitera goaz, Zuk egitera goaz. BatZuk egiten ari gara. ◀

Erandio

Gazteek logo-txapelketan parte har dezakete hilaren 24ra arte

Logo bi diseinatzeko deialdia da: Gazteria Arloa eta Lonjagunearentzat.

Erandioko Udalaren Gazteria Arloak gaur egun ez dauka erraz identifikatzen duen logorik. Horrela onartu du erakundeak berak antolatutako logo-txapelketa aurkeztean. Hala, «logo integratzaile bat, ez-nahasgarria eta moderno» beharrezkoa duela iritzita, «irudi bereizgarria eta gazte-itxurakoa» izateko neurriak hartu ditu, eta gazteei erronka berezia egin die: logo-txapelketa batera aurkeztea. Lehiaketa horren helburua logo bi diseinatzea izango da, Gazteria Arloa irudikatzen eta gazte-erakundea dabilen Lonjagune proiektua ordezkatzeko. Izan ere, pare bat urte daroa proiektu hori jorratzen, gazte-lekuetarako bitar-



info+: gazteria@erandio.eus / 946 025 891 / 609 082 646

tekaritza-zerbitzua eskaintzen Gazteria Arloa. Honako hauen beharizanei erantzuten die: lonjetako erabiltzaileak, lonja-jabeak eta auzokideak. 15

eta 35 urte bitartekoek parte har dezakete lehiaketan, hilaren 24ra arte. Irabazleak hilaren 27an ezagutaraziko dituzte, sariak Go-pro kamera bi dira. ◀

Merkatari elkarteek udal-laguntzak eskatu ahal izango dituzte, apirilaren 20ra arte

Erandioko Udalaren Merkataritza Sailak diru-laguntzen deialdia atera du. Dendari-elkarteek datorren apirilaren 20ra arte izango dute eskaera egiteko epea. Udalak finantzatuko dituen ekimenak honako hauek dira: «hurbileko merkataritzaren dinamizazioan zuzeneko eragina» duten gastuak, «sektorearen edo merkataritza-guneen sustapenera zuzendutako kultur dinamizazioak» eta «erakunde eskatzaileak lanean jarduteko gastuak». Horretarako, Udalak 8.000 euro erabiliko ditu, gehienez. Balorazio-irizpideek kontuan hartuko dute proiektuen eragina. Hala, besteak beste, «proiektuak jarduera ekonomikoaren berpiztean edo suspertzean duen eragina» eta «jarduerak Erandion izango duten merkataritza-eragina» aintzat hartuko dituzte. ◀

info+: Hiruka.eus/erandio

Sinadurak batuko dituzte Astrabuduan, parkingaren alde

Behin betiko konponbidea gura du Parkingari Konponbidea Orain! auzo-plataformak. Astrabuduan autoak uzteko arazoari orain arte Udalak ipinitako konponbideak «behin-behinekoak» direlakoan. Azken batzarrean, plataformak bere egin zuen iaz EH Bilduk proposatu zuen aparkaleku baterako proiektua. Egitasmoak 500 auto uzteko lekua izango luke, 3.500 metro koadro eta 4 milioi euroko aurrekontua. Onartzen dute Udalak 350 leku berri sortu dituela metro ondoko parkingean, baina gogorarazi dute ugazabak bere lekua berreskura dezakeela noizgura, hilabete bi lehenago abisatuz gero. Ignacio Aldekoa ikas-



Iaz, 300 bat lagunek manifestazioa egin zuten.

te txeko patioan ere behin-behineko parking bat eraikitzeak ziren, baina gimnasioa eraikitzeak asmoz dira gaur egun. Horregatik, 5.000 sinadura batu gura dituzte, Udalari «behin betiko» konponbidea eskatzeko. ◀

Kanpomartxo Lutxanan egingo dute, hilaren 30ean

Baserritarren antzinako Kanpomartxo festa egingo dute aurton ere: datorren apirilaren 30ean izango da, domekan, Lutxanan. Auzoko zein udalerriko kultur talde askok parte hartuko dute. Goizeko 11:00etatik aurrera eta gauera artean, izango da zertaz gozatu: musikariez, euskal dantza-erakustaldiez, bertso-saioak Itxaso Paya eta Anjel Mari Peñagarikanogaz, herri-bazkariak, kantaguneaz, umeen herri-kirolez eta erromeriaz, kuadrillen arteko lehiaketaz eta Luhartz taldearen erromeriaz, eta abarrez. Erandioko euskaltzaleen topagune legez berreskuratu zuen Berbots!-ek ohitura zahar hori. ◀

info+: Berbots.eus

Lutxana-Lezama zerbitzua aztertuko du Euskotrenek

Zapatuan hasiko da berriro ere Bilboko Zazpi Kaleetako metro- eta tren-geltokia. Horregaz batera, Euskotren garraio-enpresak aurreikusita zeukan Lutxanako behin-behineko tren-zerbitzua etetea, Erandioren eta Txorierriren arteko garraioa Bilbotik ere erraz egin daitekeelakoan. Hala ere, linea hori oraingoz mantendu egingo du, erabileraren gaineko azterketa bat egiteko. Printzipioz, sei hilabeteko epea dute horretarako, baina egoera kaxkarra azaleratuz gero, ez dute baztertu hilabete biren ostean ixtea. Lutxana-Lezama zerbitzua mantentzen ezazaten eskatu zuten Erandioko eta Loiuko udalek eta Euskotrenen langileek. ◀

prentsa · aldizkariak

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Irunbat
galp energia

Lola Ander Deuna, 74
48600 SOPELA
946 764 625
www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

portu zaharra bar

Portu Zaharra barra 20
48901 Algorta-Getxo
T. 94 464 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

txakoli mota gane Tx
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarianda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Eraikuntza zerbitzu integralak

Illeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

LUBERRI
OBRAK ETA ZERBITZUAK

- Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
- Inausketak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A behea, B12 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 · 94 467 17 13
luberri@luberri.biz
www.luberri.biz

Leioa

Elikadura osasungarria bultzatzen dabilta

Udalerriko ikastetxe publikoetan Gosari Osasungarria egitasmoa martxan daukate. Horrez gainera, aholkularitza-zerbitzua erabil dezakete ikasleek eta gurasoek.



Eguneko lehenengo janaldiak «bereziko garrantzia» dauka. © ASKARTZA CLARET

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren ekimenez, gazteen artean elikadura osasungarria bultzatzen dihardu Leioako Udalak. «Horri arreta ipintzea garrantzitsua da gure seme-alaben garapenerako, eta edozeinen osasunerako, zelan ez. Onak eta txarrak diren elikagaiak bereizten jakitea beharrezkoa da. Horrez gainera, elikagai osasungarriak kontsumitzearen ohitura sortu behar dugu», azaldu dute agintari leioaztarrek. 2011tik hona martxan dago udalerriko ikastetxe publikoetan Gosari Osasungarria izeneko egitasmoa: «eguneko lehenengo janaldiak berebiziko garrantzia dauka. Egunari aurre egiteko beharrezkoa daukaten

energia lortzen dute umeek horregaz; gosari osasungarri batek lagundu egiten die jolasten, ikasten eta klasean adi egoten, besteak beste», azpimarratu dute udal-arduradunek. Eta, horrez gainera, udalerriko ikasleek eta sendiek Elika aholkularitza-zerbitzura jo dezakete: 678 404 443 telefono-zenbakira dei eginez edo mezu bat idatziz hurrengo helbide elektroniko honetara: elikaleioa@hotmail.com.

Bestalde, Gosari Osasungarria izeneko egitasmoaren bidez, formazio teoriko-praktikoa ematen die Leioako Udalak umei eta senideei. Arduradunen berbetan, «umeen kasuan, jolas-jardueren bitartez, elikadura-piramideari buruzko informazioa ematen zaie». Ostera, nerabeen artean beste modu batean lantzen dute: «hilabete batzuetan egiteko jarduera bat proposatzen diegu; nutrizionista-talde batek baloratu ostean, sari bat irabaz dezakete neska-mutilek», azaldu dutenez.

Horrenbestez, herritarrei «elikadura osasungarriaren oinarriko kontzeptuak irakastea» da jarduera horien guztien helburu orokorra. ◀

Udal-batzordeak publikoak izatea baztertu dute

Batzorde informatiboak publikoak izatea proposatzeko asmoa zuen EH Bilduk, maiatzaren 30eko Osoko Bilkuran. Ostera, martxoaren 21eko udal-batzorde informatiboan, koalizioak aurkeztutako mozioa udal-batzarrean eztabaidatzaren aurka botoa eman zuten EAJk eta PPK. EH Bilduren ustez, «udal garden eta parte-hartzaile bat eraikitzeak aukera paregabea» galdu dute agintariek. Gainera, jeltzaleen jarreragaz «harrituta» daude independentistak; izan ere, aukera hori EAJk eta EH Bilduk onartutako «Udal Legean jasota» ei dago. «Gustuko ez dituen gaiez eztabaidatzeko beldurra» dauka Udal Gobernuak, EH Bilduren ustez. ◀

Defentsa pertsonala ematen dabilta Askartza ikastetxean

Askartza Claret ikastetxeko kirol-degiak apirilaren 1ean martxan ipini zuen defentsa pertsonaleko eskola; erasoei zelan aurre egin erakutsiko diete Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zein Batxilergoko ikasleei. Hala ere, bertoko kirol-arduradunek nabarmendu dutenez, kanpoko lagunek ere parte hartu ahal izango dute: martitzenetan eta eguenetan, 16:00etatik 17:00etara, eta zapatuetan, 10:00etatik 12:00etara. Gaineratu dutenez, ekimena ez da emakumeentzat bakarrik. Hileroko kuota 50 eurokoa izango da; aste bakoitzean, bi orduz jasoko dituzte eskolak parte-hartzaileek. ◀

info+: kiroldegi.askartzaclaret.org

Kale-argiagatik %20 gutxiago ordainduko du Leioako Udalak

Argiteria publikoko kontratua izenpetu berri du Leioako Udalak Ferrovial-Elekticidad Martin aldi baterako enpresa elkar-teagaz. Hala, sozietate hori arduratuko da kaleko argiak berriztatzeaz, horien mantenu-lanez eta hornidura energetikoaz. Agintari leioaztarrek nabarmendu dutenez, «orain ordaintzen denaren %20 inguru gutxiago ordainduko du Udalak». Horren truke, esleipendutakoak sare osoa berriztatzeaz arduratuko dira, «luminarietatik bihurketa-zentroetara»; «leioaztarrek ez dute horregatik guztiagatik gehiago ordaindu behar izango», udal-iturriek azpimarratu dutenez. Agintarien



Energiaren kontsumoan ere aurreztuko dute.

berbetan, «onura ez da bakarrik ekonomikoa izango; izan ere, Udalaren energia-kontsumoa ere txikitu egingo da, eta udalerriko kale denetan A Kalifikazio Energetikoa lortuko da». ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

Aurora Bugedo Martínez

Zuk ereindakoen indarragatik zuri gure eskerrak; sendiari eta kideei, besarkadatik bihotzkoenak.

HIRUKA komunikazio-taldeko lankideak

Berango

Gaitasunak garatzeko tailerrak antolatu dituzte

Udalerriko lanbakoan ahalduntzea eta baliabideak indartzea dira hiru tailerren helburuak. Apirilaren 23an hasiko da lehenengoa; doakoak izango dira.



info+: 688 724 654 (María Macías) / mmacias@fundacionintegrando.com

Gizarteratzen eta laneraten laguntzeko programak izandako harrera ona dela eta, langabeentzako doako ikastaroak antolatu ditu Udalak. Horien helburua da parte-hartzaileen gaitasun pertsonalak, harreman gaitasunak eta antolaketa gaitasunak garatea. Horretarako, tailer bana antolatu dute, eta hiruzpalau eguneko iraupena izango dute. Lehenengoa apirilaren 23tik 28ra bitartekoa izango da, gaitasun pertsonalen tailerra, hain zuzen ere. Ikastaroak doakoak izango dira, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz laguntzen baititu. Horietan parte hartzeko alde zurekin izena ematea beharrezkoa da. ◀

Erabakitze eskubidearen aldeko bilera, barikuan

Uribe Kostako gainontzeko udalerriei jarraituz, Berangok ere erabakitze eskubidearen aldeko biderei ekingo dio laster; izan ere, apirilaren 7an, barikuan, Gure Esku Dago taldea osatzeko eta galdeketa egin behar den ala ez erabakitze herri-bilera egingo dute. Arrastiko 07:30ean ipini dute hitzordua, Berangoeta kultur etxean. «Taldea sustatzailearen proposamena begi onez ikusiz gero, argazki bat egin eta lanean hasiko gara», azaldu dute deitzaileek. Berangok 560 sinadura behar ditu herri-galdeketa egiteko. Daborduko 73 herritan egin dira galdeketa; aurten, gainera, ehun herritan baino gehiagotan egitea aurreikusita dago. Gurean, Barrika, Gorliz, Plentzia, Sopela eta Urduliz izango dira lehenengoa, maiatzaren 7an egingo baitute herri-galdeketa. Azaroan «bigarren olatu bat» aurreikusten dela ohartarazi dute berangoztarrek. ◀

Sopela

Kableen lapurretek eztabaida sortu dute udal-taldeetan

Udalerrian jazotako kableen lapurretek ezinezona sortu dute DB-TU alderdian. Udalak ipinitako sistemak alarma bat daroa, kablea ebakitzera isiotu egiten dena. Hala ere, sistema ezarrita egonda ere, iaz kable-zati bat lapurtzea lortu zutela deitoratu du oposizioko taldeak, «behin, gutxienez». Horrenbestez, lapurreta horiek ez gertatzeko konponbide teknikorik onena zein den ikeretzea eskatu dio behin baino gehiagotan Udalari. Gontzal Hermsilla alkateak azaldu du ezarritako sistema udal-teknikarien txostenetan oinarritzen dela; hala ere, DB-TUk bestelako sistema bat



Kableen kutxatilen egoera «kaxkarra». © DBTU

proposatu du, kutxatilik babesten dituen. Horri erantzunez, Hermsillak dio sistema hori ere ez dela «hutezina», «gaur egun ez baitago % 100 lapurretak ekidin ahal duen sistemarik». ◀

Aste Santuko tailerretan izena eman daiteke

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere, 4 eta 12 urte bitarteko neska-mutilengana zuzendutako tailerrak antolatuko ditu Sopelako Udalak Aste Santuan. Hala, apirilaren 19an, 20an eta 21ean zirkuaz, magia eta robotikaz gozatzeko aukera izango dute umeeak. Horietan denetan 10 eta 15 arteko lekukopurua egongo da. Ordu-tegiari dagokionez, jarduerak goizeko 10:00etatik 14:00etara egingo dira, Kurtzio kultur etxean. Parte hartu ahal izateko apirilaren 9a baino lehen izena ematea beharrezkoa da, Sopelako udaletxean, Sopelaren edo Kurtzio kultur etxean. ◀

info+: www.sopela.eus

La Modista filma proiektatuko dute hilaren 20an, Kurtzion

Apirilaren 20an, eguenean, *La Modista* pelikula proiektatuko dute Sopelako Kurtzio kultur etxean, Itzartu Elkartek antolatuta. Arrastiko 06:00etan ipini dute hitzordua, eta sarrera doakoa izango da. Antolatzailerik jakinarazi dute pelikula gaztelaniaz proiektatuko dutela. Genero ikuspegiko film horrek 50ko hamarkadako Australia aurkezten du. Bertan, Frantzia ibilitako modista bat bere sorterrira bueltatzen da, Australiako Dunggatar herri txikira. Buelta horregaz, aspaldiko zauriak itxi gura ditu, eta bertatik ihes egitera behartu zutenak mendekua hartuko du... ◀

GAVRKO
1967



50. URTEURRENA
GIZONENTZAKO
MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

OSABIDE Hertz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskulna. ALGORTA - 94 430 76 96



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA - 94 491 27 34

Guira izanez gero, etxera erango dizugu egunkaria!



AIXERROTA BHI IKASTETXEA

Batxillergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)

Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

Plentzia

Estalkia aldatu guran

Metro-geltokiko estalki berria aldatzeko eskatuko du EH Bilduk, eraikinari motz ematen diolakoan.

Plentziako metro-geltokiaren estalki berria ipintzen hasi dira; horrek ezinegona sortu du herritarren artean, eta udal-taldearen artean ere bai. Hori dela eta, estalki hori eta daborduko nasan dagoena ordezkatzeko eskaera hasi duela jakinarazi du EH Bilduko udal-agintariak. Azaldu dutenez, orain egiten dabiltzanak eraikina guztiz «itsustu egiten» du, hortaz hori kentzea eskatuko dute. Horren ordez, eraikitzen dabiltzan eraikinagaz bat datorren eta horregaz «lehian ez dabilen» estalkia batengatik ordezkatzeko eskatuko dute. Plentziako Independentek taldeak lanok



Estalki berriak ezinegona eragin du herritarren artean.

salatu zituen; horren aurrean, koalizio abertzaleak deitoratu du Plentziako Independentek saiatu dela EH Bilduk Udalean egindako lana «zikintzen».

Oposizioko taldea komunikabideetako izenburuen erritmora mugitzen dela salatu du EH Bilduk, «haien idatziak aurkeztean antza, hautematen dituzten arrazoiei aurre hartzen jakin gabe».

Urduliz

Apirilaren 10ean helduko da metroa

Urdulizko metro-geltokia apirilaren 10ean zabalduko dutela aurreikusten dute Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) eta Euskal Trenbide Sareak (ETS). Hala ere, horren gaineko eremua urbanizatzeko prozesua hainbat hilabetez luzatuko da. Arduradunek azaldu dutenez, proiektu hori fase bitan garatuko da. Alabaina, obrak «aurten» hasiko direla aurreikusi dute. Milioi euro bat baino gehiago inbertituko ditu Urdulizko Udalak 6.000 metro koadro dituen eremu hori egokitzeko. Metro-geltokia zabaldu aurrean, Metro Bilbao zirkulazio-probak egiten dabil Sopela eta Plentzia arteko zatian, bezerorik gabe.



Geltoki zaharreko eremua urbanizatzeko dute.

Urdulizko ospitaleak zerbitzu berriak zabaltzen jarraituko du datozen asteotan eta, lehenengoa, larrialdietako zerbitzua izango da. Hori iragarri dute Jon Darpón Osasun Sailburuak eta María Jesús Múgica Osakidetzako zuzendari nagusiak, Uribe osasun-eskualdeko alkateak egin duten lan-bileran. Ospitalizazio-zerbitzua eskaintzen hastea atzeratzearen arrazoiak azaldu dituzte; horren ardurarik ezin izan zuten, «ospitaleko ikuztegiaren, garbiketaren eta sukaldaritza zerbitzua kanpo ateratzearen aurka ipini dituzten helegiteen» ondorioz eman dela defendatzean.

Ospitaleko larrialdien zerbitzua zabalduko dute datozen asteotan

Urdulizko ospitaleak zerbitzu berriak zabaltzen jarraituko du datozen asteotan eta, lehenengoa, larrialdietako zerbitzua izango da. Hori iragarri dute Jon Darpón Osasun Sailburuak eta María Jesús Múgica Osakidetzako zuzendari nagusiak, Uribe osasun-eskualdeko alkateak egin duten lan-bileran. Ospitalizazio-zerbitzua eskaintzen hastea atzeratzearen arrazoiak azaldu dituzte; horren ardurarik ezin izan zuten, «ospitaleko ikuztegiaren, garbiketaren eta sukaldaritza zerbitzua kanpo ateratzearen aurka ipini dituzten helegiteen» ondorioz eman dela defendatzean.

Gorliz

Udal Liburutegiak EAEko edozein liburu eskain dezake

EAEko Liburutegien Sistema Nazionalen parte hartzen duten liburutegi guztietatik dokumentuak eskatzeko aukera eskaintzen die daborduko Gorlizko Udal Liburutegiak erabiltzaileei. Zerbitzua joan den martxoan ipini zuten martxan, eta gorliztar guztien mesederako izango dela uste dute arduradunek. «Zerbitzu berri honek informazio munduan unibertso zabalago bat eskainiko digu eta liburutegian bertan kudeatuko da», azaldu dute. Hala, askotariko materialak lortu ahal izango dira bertan, bestelako herri batzuetara mugitzeko beharrik izan gabe. Arduradunek jakinarazi dutenez, sareko mailegu-zerbitzu horren bitartez, eta liburutegien arteko kolaborazioari esker, liburutegiek erabiltzaile denen esku ipiniko dituztela dokumentu denak, bertoko fondo-dokumentalean egon ez arren.

Loreen eta Landareen VI. Azoka egingo dute apirilaren 23an

Eskualdeko landareak eta zuhaitzak eloratzen hasi dira daborduko. Hori dela eta, udaberriko kolore biziz gozatzeko aukera dago egunotan inguruetan. Hori aprobetxatuz, urtero legez, landare- eta lore-azoka egingo dute apirilaren 23an, domekan, eliz aurreko plazan. Horretarako hitzordua goizeko 10:00etan ipini dute, eta 14:00etara bitartean, plazara hurreratuko diren gizon-emakume denek landare eta lore bizien erakusketaz gozatu ahal izango dute. Horrez gainera, zelan ez, gustuko denak dituzten landareak eta loreak erosi ahal izango dituzte. Aurten goa seigarren edizioa izango da, eta urteko hitzordu garrantzitsu bihurtu da daborduko Gorlizan.

DIDAK HAMILTON
IDIOMAS
Ingelesa · Frantsesa · Alemaniera
· Taldeak, enpresak eta partikularrak
· Eskolaz kanpoko ekintzak
· Maila guztiak
· Ingelesa 3 urtetik aurrera
· Talde txikiak
· Ingalaterran egonaldiak
Dr. Landa, 6/Iberre 9 · 48600 SOPELA
94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika
Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com
Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74
Jatorrizko bermea mantentzen dugul!

BOSCH Service
Car Service

hau herikuntzatik
ander deuna batxilergora
Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus

Lemoiz



Orain dela 14 urte ipini zuten martxan eskola, 13 umegaz; gaur egun, 91 neska-mutilek ikasten dute bertan.

Eskola «txiki» gelditu dela deitoratu du zuzendaritzak

Azpiegitura egokitzeko eta handitzeko proiektua egoera hobetzeko baliagarria dela aitortu arren, eskola berri bat beharrezkoa dela aldarrikatu du zuzendaria.

Lemoizko eskola hobetzeko proiektua martxan du Eusko Jaurlaritzak. Bertoko Udalgaz eta eskolagaz elkarlanean osatu dute egitasmoa; hala, eskola handitu eta estalitako patio bat egingo dute, baita instalazio batzuk hobetu ere. Azpiegitura hobetuko eta handituko duten arren, proiektua ez dela «nahikoa» uste du Natxo Hormaetxea eskolako zuzendaria. Azaldu duenez, proiektu horregaz azpiegitura hobetuko da, baina benetan «beharrezkoa» dena eraikin berri bat dela aldarrikatu du. «Orain dela 14 urte, eskola zabaldu zenean, 13 ume ziren. Baina, urtez urte, kopuru hori handituz joan da, eta, orain, 91 ume ditugu. Eskola txiki

gelditu da», azaldu du. Jaurlaritzak garatuko duen proiektuagaz, eskolaren egoera «hobetu» egingo dela onartu du zuzendaria, «hainbat gabezia konponduko dira». Hala ere, horrez denaz gainera eskolak beste hainbat gauza behar dituela deitoratu du, «gimnasio bat behar dugu, baita gurasoekin egoteko gelatxoak ere, eta horrelakorik ez dugu izango». Euren beharrezkoei aurre egiteko «partxe on» bat dela aitortu du zuzendaria; oster, benetan gura dutena eskola berri bat dela aldarrikatu du. Bestalde, guraso-elkartearen lehendakari Iñaki Martin Etxebarriak positiboki baloratu du egitasmoa; hala ere, etorkizunean jangelan bertoko produktuak zuzenean kontsumi-

tu ahal izatea proposatu du. Oraindik ez dute zehaztu noiz hasiko diren lanak, proiektua ez delako lehiaketara atera. Hala ere, Hormaetxeak jakinarazi duenez, proiektua Aste Santurako prest izatea aurreikusten du Jaurlaritzak. Horren ostean, obrak egin behar dituzten lurzatia ikusi eta lizitazioa atara beharko dute obrak abiatzeko. Horretarako, Udalak arau subsidiarioetan aldaketak onartzea beharrezkoa izan da, jolastoki berria lurzoru eraikigarrian egin ahal izateko. Gainera, eremu hori «garbitu» ere egin beharko du Udalak; hori maiatzean eginda egotea aurreikusi dute, «hori egiten ez badute, ezin delako lizitazioa atara». ◀

info+: www.hiruka.eus/lemoiz

Bizkaia Kopa Trailen ibilbide bi egingo dituzte

Bizkaia Kopa Trailen (BKT) bigarren proba egingo dute apirilaren 30ean, domekan, Lemoizen. Ibilbide bi egingo dira: lehenengoa, 22,92 kilometrokoa, traila, martxa eta MTB moduan egitekoa; bigarrena, 9,51 kilometrokoa, traila, martxa eta txakur-kros modura egitekoa. Horietakoren batean parte hartu gura dutenek hilaren 23ra arte izena eman dezakete. Lehiaketaren egunean ere izena ematea aukeran egingo da, zenbakiak gelditzekotan, 08:00etatik aurrera. *Online* bidez izena eman duen bakoitzari oroitzapenezko opari bana emango diote. ◀

Armintzako kofradia berriak eztabaida sortu du herrian

Jaurlaritzak, Udalak eta Armintzako Arrantzale Kofradia kofradiaren eraikin berria egiteko oinarriko proiektua amaitu zuten iaz. Proposamen horrek zalantzak eragin ditu hainbat auzokideren artean, eta horren inguruan herritarren iritzia kontuan har dezatela eskatu dute. Horretarako, sinadurak batzen hasi dira *Change.org* plataformaren bitartez. Bertoko arrantzaleen beharrezkoei erantzuten dien eraikina egiteagaz ados daude; oster, portuko eremu handi bat okupatzearen aurka agertu dira. «Eraikinak egundoko oztupo arkitektonikoa sorlezake, astialdirako gunerik garrantzitsuenan», deitoratu dute. Modu berean, proiektua garatzeko aurrekontua «gehiegizkoa» dela uste dute. Almudena Ruiz de Angulo Eusko Jaurlaritzaren Garraio Azpiegituren zuzendaria azaldu duenez, «kofradiaren gaur egungo eraikina eraitsi eta berria eraikiko da, portuko lurretan. Herrian arrantza-jarduera ahal den neurrian sustatzeko aukera ona da». ◀

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41

Algorta

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

TXIBERRI
EDANTOKIA

FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4, URDULIZ
94 676 07 15

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25



Tradizioa

JOKIN
DE PEDRO
Idazlea

Etena gertatzean: tradizioaren berrezartzea

Euskal Herriaren tradizioak, Hegoaldekoak bereziki, egoera traumatikoa jasan behar izan du Espainiako gerraren irabazleek ekarritako genozidio ideologiko-kulturala dela medio. Debekuak, jazarpenak, gezurrak, deskulturazioa... ez goaz hemen gerraosteak zenbaten bi-ziak eta erbesteratzeak eragin zituen azaltzera —hori ere gure historiaren tradizioa bada ere—, baizik eta herri honengan utzi duen zauri kulturalaz jardutera. Tradizioak, gorabehera larri horien ondorioz, etenduraren mugan gelditu den higadura handia pairatu du: hizkuntzan, historian (geure historian), folkloean, ohituretan... herriak tripaz gora dagoen katuaren antzera eutsi behar izan dio biziari, irauteari, tradizioa erabat ez galtzeari.

Amaitu zen diktadura (?), etorri ziren garai hobeak eta nolabait lasaiagoak gure kultura garatu ahal izateko, baina... galdu zenarekin, zer egin: dena galdutzat jo, dena berreskuratzen saiatu...? Zuhur jokatu beharra dago, noski; ezin den-dena berreskuratu, ezta guztia galdu ere. Agian, ahal den guztiari eutsi eta berreskuratu beharko genuke, baina iraupena, bizia, identitate oinarritzakoa arriskuan jarri barik. Irizpide hori, hizkuntza irizpideetan bezala, gainerako kultur eremuetan izan liteke aintzat hartzekoa, ondo mamituriko estrategia kolektibo baten arabera ezartzen bada. Eta hor ere, erabakitzeko eskubidearen inguruan bezalaxe, itun kultural bat beharko litzateke, etorkizuneko Euskal Herria diseinatu eta eraikitzeko. Estatu burujabea behar dugu euskaldunok, ezinbesteko tresna moduan; baina hori ere ez da nahikoa: zuhur eta zintzo jokatu beharko dugu geure tradizioarekin, euskaldunon mendeetako identitateari segida emateko, haren jabe izateko. ◀

Uribe Kosta

Gernikaraino martxa, errefuxiatuen alde

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako kideak oinez joango dira apirilaren 29an eta 30ean Gernikan izango den nazioarteko ekitaldira.

Errefuxiatuek gaur egun bizi duten egoera salatu eta eurenaganako elkartasuna adierazi gura du Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) plataformak. Horretarako, nazioarteko topaketa bat antolatuko dute apirilaren 29an eta 30ean, Gernikan. Euskal Herriko, Espainiar estatuko eta beste herrialde batzuetako milaka lagun bertan batzea aurreikusten dute antolatzaileek. Izan ere, egun horietan Gernikako bonbardaketaren 80. urtemuga oroituko dute; hala, «gerrarik ez» oihukatuz, migratzaileak eta errefuxiatuak ondo etorriak direla aldarrikatuko dute. Bertaraino, Uribe Kostatik ere errefuxiatuen aldeko ibilbidea egingo du Lemoiz, Gorniz eta Plentziako OEE plataformak. Plentzia-Mungia



Oinez 16:30ean irtengo dira; autobusak ere egongo dira, zutabeari gehitzeko. © SIRA ANTOLIN

zutabea osatuko dute, apirilaren 28an, Gernikaraino oinez joateko. Arrastiko 04:30ean irtengo dira Plentziako portutik, Mungiaraino heltzeko. Bertan lo egitea aukeran egongo da, frontoian. Horretarako, alde zurretik izena ematea beharrezkoa da. Hurrengo egunean, zapatuan, Gernikara bidea hartuko dute, 09:00etan. Aurreikusituz, 17:00etan helduko dira hara. Bestalde, zapatuan Gernikaraino au-

tobusez joatea ere aukeran egongo da. Zutabe denei ondoetoria egin ostean, askotariko ekimenak eta tailerrak antolatuko dituzte Gernikan, nazioarteko hainbat kideren laguntzagaz. Ekimen horren nondik norako denak azaltzeko berbaldi informatiboa egingo dute hilaren 21ean, barikuan, 19:00etan, Plentziako Danontzat gaztetxean. ◀

info+: www.ongietorrierrefuxiatuak.info
didamarin@hotmail.com / 675 720 810 (Dida Marin)

Gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpaina, martxan

Gazteek gidabaimena lortzeko azterketa teorikoa euskaraz egitea bultzatzeko kanpaina martxan ipini dute Erandioko eta Getxoko udalek, berriro ere. Udalerri bi horietan erroldatutako 17 eta 23 urte arteko neska-mutiek izena eman ahal izango dute egitasmoan. Erandioztarrek 150 euroko diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte; getxoztarrek, berriz, 100 eurokoak. ◀



Abendura arte egin daitezke eskaerak.

Aplikazio bat erabil daiteke tratamendu medikoari jarraitzeko

EAEko biztanleria osoak erabil dezake mugikorrek *Nire tratamendua* aplikazioa. Kontsultan ezarritako tratamendu medikoari jarraitzeko laguntza jaso ahal izango da horren bidez, «osasunarentzako onurak eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko», azaldu dute arduradunak. «Segurua, praktikoa eta erabilerraza» den aplikazio hori Tratamendu Orria eta pilulak antolatzeakoxa fisikoak ordezkatuz dator. ◀

Herri-galdeketa laguntzeko, boluntario bila dabilta

Uribe Kostako herritar askok erabakitzeko eskubidea gauzatzeko hautua egin dute, eta maiatzaren 7an ipini dute ikusmira. Izan ere, Barriako, Lemoizeko, Gornizeko, Plentziako, Sopelako eta Urdulizeko herritarrek erantzun ahal izango diote egun horretan hurrengo galderari: «Euskal estatua burujabe bateko herritarra izan gura dozu?». Herri-galdeketa antolatzaile den Gure Esku Dagok jakinara-

Metro-zerbitzua sarriago ipintzea eskatu gura dute

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) ez du aurreikusten metro-zerbitzuaren maiztasunak areagotzea Urdulizen. Horrek ezinegona eragin du inguruko hainbat herritarren artean, «ospitalearen irekierak ibilgailu pribatuaren inpaktua areagotu» egingo duelakoan. Hori dela eta, sinadurak batzen hasi dira *Change.org* plataforman, metro-zerbitzua sarriago eskain dezan. ◀

zi duenez, erronka horri erantzuteko «ezinbestekoa» dute herritar guztien laguntza eta parte-hartzea. Hori dela eta, galdeketa egunean jarduteko boluntarioak behar izango dituzte. Hala, lagundu gura duenak izena eman dezake daborduko. Gainera, apirilaren 8an, zapatuan, pilota-maratoia eta merkatu txikia egingo dituzte Sopelako frontoian eta udaletxe plazaan, hurrenez hurren; 10:00etatik aurrera. ◀

hirukaganda

Uribe Kostako astekarria

2017ko apirilaren 7tik apirilaren 26ra arte



hiruka.eus

Alos Quartet musika-taldeak eta Aukeraren Dantza Konpainiak *Garden* ikuskizuna eskainiko dute. © ALOS QUARTET



LEIOA / SOPELA

Alos Quarteten musika, Aukeraren dantzakaz

Alos Quartet musika-taldeak *Garden* lana aurkeztuko du, Leioan eta Sopelan. Xabier Zeberio (biolina, nykelharpa), Francisco Herrero (biolina), Lorena Núñez (biola) eta Pello Ramirezek (biolontxelo, eskusoinua) osatutako laukoteak Kultur Leioan joko du, bariku honetan, hilaren 7an, gaueko 09:00etan. Sarrerak 7,5 eta 15 euro bitartean egongo dira salmen-

tan. Bihamunean, apirilaren 8an, Kurtzio kultur etxean emango dute kontzertua, iluntzeko 08:00etan. Saio horretako sarrerak 6 euroan egongo dira salgai. Ohi den legez, emanaldi bietan, Aukeraren Dantza Konpainiako lagunek parte hartuko dute.

Alos Quartetek 1999an eman zuten lehenengo pausoak. Musika klasikoan zein modernoan, esperien-

tzia handiko musikariek osatzen dute taldea; hainbat orkestragaz jarduteaz gainera, folk-talde ezberdinetako ki-deak dira taldekideak: Oskorrigaz edo Benito Lertxundigaz jo izan dute, besteak beste. Euren azkeneko diskoa urteetan bidelagun izan dituzten artistakaz grabatu dute: Oreka TX taldeagaz eta Eñaut Elorrieta abeslariagaz, berbarako. ◀

ANTZERKIA

APIRILAK 8, ZAPATUA

La percha

18:00 | Berango Antzokia | Berango
La Sombra Teatro taldeagaz. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 1 euro.

APIRILAK 9, DOMEKA

Xihiko

18:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Elirale taldeagaz. Denontzat. Testu barik. Sarrera: 2,50-5 euro.

No nos llega

19:00 | Aretako musika-eskola | Getxo
Emakumeak Eszenan zirkloaren barruan. Xankore taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

APIRILAK 21, BARIKUA

Magia lapurra

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Txalo Produksioak taldeagaz. Euskaraz. Sarrera: 3 euro (umeek) / 5 euro (helduek).

APIRILAK 23, DOMEKA

Zirriborro

18:00 | Berango Antzokia | Berango
Badut taldeagaz. Umzentzat. Testu barik. Sarrera: 1 euro.

AZOKAK

APIRILAK 23, DOMEKA

Lore eta Landare Azoka

10:00-15:00 | Elizako plaza | Gortiz
Doako tailerrak ere egongo dira.

APIRILAREN 27TIK 30ERA

Liburu Azoka

Telletexe plaza (Algorta) | Getxo

Goizean zein arrastian (domekan goizean bakarrik). Liburuen salmenta, jolasak, eskulanak, irakurketa-bokoa eta beste hainbat jarduera egongo dira. Sarrera, doan.

BERBALDIAK

APIRILAK 21, BARIKUA

¡Convirtamos cada territorio en tierra de acogida!

19:00 | Danontzat gaztetxea | Plentzia

Plentzia, Gortiz eta Lemoizko Ongi-Etorri Errefuxiatuak plataformak antolatuta. Doan.

APIRILAK 25, MARTITZENA

Gestión de la energía en

Plentzia: de dónde venimos y

MAIATZAREN 8RA ARTE

Dolo Navas 2012-17

Kultur Leioako erakusgela | Leioa
Dolo Navas artista gorliztarrek oihalakaz egindako eskulturak. Sarrera, doan.

KORRIKA

APIRILAK 7, BARIKUA

Sopelako Korrika Txikia

10:00 | Ander Deuna ikastola | Sopela
Akabuan, festa egingo dute, Urko kiroldegian.

KIROLA

APIRILAK 9, DOMEKA

Sopela Sasoian

12:00 | Igeritekua | Sopela
Hainbat arriketa egingo dituzte. Sarrera, doan. Izen-ematea: 944 065 520

APIRILAK 22, ZAPATUA

Igeriketako eskola-sariketa

16:00 | Igeritekua | Sopela
Sopela Igeriketa Swim taldeak antolatuta.

APIRILAK 23, DOMEKA

Sopelako Udala Federatuen

Igeriketa-sariketa

10:00 | Igeritekua | Sopela
Sopela Igeriketa Swim taldeak antolatuta.

MUSIKA

APIRILAK 8, ZAPATUA

Euskal kantu liriko berriak

20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Marta Velasco (mezzosopranoa), Asier Sierrak (klarinete-jolea), Elena Cadernok (piano-jolea) eta Sabino L. de Gereñok (narratzailea) parte hartuko dute. Sarrera: 3 euro.

APIRILAK 20, EGUENA

Lee perk (rock-taldea)

20:00 | El Comercio taberna (Areta) | Getxo
Getxon Zuzenean zirkuitua. Sarrera, doan.

ZINEMA

APIRILAK 7, BARIKUA

Zinegoak

20:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Biboko Gaylesbotrans Nazioarteko Zinema Jaialdian aurkeztutako hainbat pelikula. Doan.

Bar Bahar

21:00 | Aretako musika-eskola | Getxo

PLENTZIA

Putxera Eguna egingo dute, apirilaren 8an

Aurton ere, lapikoko-txapelketa egingo dute, Plentzian, zapatu honetan, apirilaren 8an. Parte hartu gura dutenek goizeko 10:00etan izena eman behar-ko dute, Eliz plazan. Lapikoak 13:30ean aurkeztu beharko dituzte. ◀

GETXO

Barne Barnetik Fest, Txorimalo gaztetxean

Crap, Madskins eta Tears & Beers taldeek joko dute aurten Barne Barnetik Fest jaialdian; Txorimalo gaztetxean egingo dute, zapatu honetan, apirilaren 8an. Kontzertuak 20:00etan hasiko dira, eta sarrerak 4 euroan egingo dira salgai. ◀

BERANGO

Koko, dragoi txikia pelikula, umeentzat

Umeek *Koko*, *dragoi txikia* animazio-filmaz gozatu ahal izango dute Berango Antzokian, domeka honetan, apirilaren 9an. Emanaldia arrastiko 06:00etan izango da; sarrera, doan. Zineuskadik itzuli zuen euskarara film hori. ◀

hacia donde vamos

19:00 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Goienar eta Esetek enpresek Plentziako Udalgaz antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

Irakurle Kluba

19:30 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Irene Nemirovskiyren *El ardor de la sangre* liburua ezberba egingo dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

BERTSOLARITZA

APIRILAK 7, BARIKUA

Kapulana bat zintzilik

18:00 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Miren Amuriza bertsolariagaz. Euskaraz. Doan.

DANTZA

APIRILAK 7, BARIKUA

Getxo Dantza

19:00 | Santa Eugenia plaza (Romo) | Getxo
Andrés Isasi Musika Eskolak antolatuta. Agurra, Berantzagi, Ixartu, Ixas Argia, eta Zasi Eskola dantza-taldeen parte hartuko dute. Doan.

DEIALDIAK

APIRILAK 7, BARIKUA

Erabakitzeko eskubidearen aldeko bilera

19:30 | Berangoeta kultur etxea | Berango
Gure Esku Dago taldea osatzeko bilera irekia egingo dute. Besteak beste, herri-galdeketa egitea beharrezkoa den edo ez eztabaidatuko dute, bileran.

ERAKUSKETAK

APIRILAREN 18TIK 28RA ARTE

La expresión en la pintura

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Arantza Molinosen olio-margoak. Astelehenetik barikura. Sarrera, doan.

APIRILAREN 26RA ARTE

Pinturas acrílicas

Algortako kultur etxea | Getxo
Mari Carmen Ruizen margolanak. Astelehenetik zapatura. Sarrera, doan.

APIRILAREN 27RA ARTE

Lan grafikoa 70eko hamarkadan

Algortako kultur etxea | Getxo
BBKren Gizarte Ekintzak antolatuta. Hainbat egileren lanak. Astelehenetik zapatura bitartean. Sarrera, doan.

Hebreeraz, gaztelaniazko azpiftituluakaz. Sarrera: 2,90 euro.

APIRILAK 11, MARTITZENA

Cegados por el sol

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo Zineforuma. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

APIRILAK 13, EGUENA

Nuestra hermana pequeña

18:30 | Algortako kultur etxea | Getxo
Getxoko Enclave emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

APIRILAK 15, ZAPATUA

Brooklyn animazio-filma

19:00 | Berango Antzokia | Berango
Umeentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

APIRILAK 16, DOMEKA

Kun Fu Panda 3 animazio-filma

18:00 | Berango Antzokia | Berango
Umeentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

APIRILAK 18, MARTITZENA

La habitación

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo Zineforuma. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

APIRILAK 19, EGUAZTENA

Zipi & Zape eta kapitainaren irla animazio-filma

17:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Denontzat. Euskaraz. Sarrera: 2,10 euro.

APIRILAK 20, EGUENA

La modista

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Izartu emakumeen elkarteak antolatuta. Doan.

APIRILAK 22, ZAPATUA

Robinson Crusoe. Una aventura tropical

17:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Umeentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Elle

20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

APIRILAK 23, DOMEKA

La vida de Calabacín

17:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.



Planista hegokorearrak mundu osoan eskaini ditu emanaldiak. © FUNDACIÓN ALBÉNIZ

Ah Ruem Ahn piano-jolea, Areetan

Hego Koreako Suwon hirian jaio zen Ah Ruem Ahn, 1984an. Seuleko Yonsei Unibertsitatean ikasi ostean, Alemaniatarino joan zen musika ikasten jarraitzeko asmoz. Nazioarteko lehiaketa esanguratsuenetan parte hartu du: Suediako Edward Grieg sariketa irabazi zuen, 2016an, besteak beste. ◀

Noiz: Apirilak 8, zapatua.

Ordua: 19:30

Non: Andrés Isasi musika-eskola (Areetan).

Sarrera: 10 euro.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Toti Martínez de Lezea berbaldua emango du apirilaren 28an, Algortan. © EREIN

Ekimen batzuk

Umeentzako irakurketa-kluba

Apirilak 28, barikua

18:30 Txanda bi egingo dituzte: lehenengo orduan, 3 eta 4 urte arteko neska-mutilak; hurrengoan, 5 eta 7 urte bitartekoak. Barrikako udal-liburutegian.

Literatur txangoak

Apirilak 22 eta 23, zapatua eta domeka

11:00 Ramiro Pinilla idazle getxotarra zenaren *Verdes valles, colinas rojas* eleberria garatzen den Getxoko zenbait lekutatik ibilbidea. Aurretik izena eman beharra dago, 944 910 800 telefonora deituz.

UKITX, Julen Gabiriagaz

Apirilak 27, eguena

19:30 Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoa Julen Gabiria idazleagaz batuko da *Beruna Patrikan* bere liburuaren inguruan berba egiteko. Algortako liburu-azokan, Telletxen.

info+: Hiruka.eus/kultura

Liburuaren Eguna ospatzeko

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, literatura nagusi izango da egunotan eta asteotan, eskualdean.

Barrikako, Erandioko eta Getxoko kultur etxeek eta liburutegiek iragarri dutenez, apirilaren 23a den data berezia ospatuko dute; jarduera ia denak egun horren inguruetakoetan egingo

badituzte ere. Batetik, Barrikan, astelehenean izango da ekimen garrantzitsuena, hilaren 10ean, Henning Mankell idazle suediarra zena izango dute gogoan udal-liburutegian, 18:30etik aurrera. Liburu-forumean berbabide

izango dituzte Wallander polizia-inspektorearen sailetik kanpoko eleberri bi: *Zapatos italianos* (2006) eta *Botas de lluvia suecas* (2016; egilea hil ondoren argitaratu zen).

Bestetik, Erandioko Udal Liburutegiak irakurraldi publikoa antolatuko du hilaren 24an, astelehenean, «Liburuaren Eguna ospatzeko». Euskarazko ekitaldia udaletxeko bilera-aretoan

egingo dute, 10:00etatik 14:00etara. Bertan, Toti Martínez de Lezearen *Esne eta eztizko lurra* lana irakurriko dute.

Azkenik, Getxo udalerrriak agenda literaturaz beteta izango du. Udal-liburutegiek zenbait hitzordu interesgarri ipini dituzte, apirilaren 18tik 30era, denak doakoak. Liburu-azokaren barruan egingo dituzte gehienak, Algortan, hilaren 27tik aurrera. ◀

Ni gaztea nintzenean narrazioen lehia, abian

Leioko Udal Kultura Sailak Narrazioen XVIII. lehiaketa antolatu du, *Ni gaztea nintzenean* goiburuagaz. Gai horretan oinarrituta, partaide bakoitzak narrazio bi aurkeztu ahal izango ditu, apirilaren 21era arte. Lanak euskaraz edo gaztelaniaz egin daitezke, eta bost orrikoak izango dira, gehienez. Narrazioak jatorrizkoak, argitaratu bakoak eta saritu bakoak izatea beharrezkoa da. Lehiaketan lau maila daude: adinbakoak, 19 urtetik 35 urtera bitartekoak, 36 eta 55 urte bitartekoak, eta 56 urtetik gorakoak. Modalitate bakoitzean sari bi emango dituzte: 250 eta 125 eurokoak. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da; hala, epaimahaiak aukeratutako lanen egileei ekainaren 7an emango diete saria, Kultur Leioan antolatuko duten ekitaldian, eta saritutako lan denak *2017ko Lehiaketa Liburuaren* argitaratuko dituzte. ◀

info+: Kulturleioa.com

Oinarrietako batzuk

Lanak aurkezteko epea

Apirilaren 24ra arte.

Nora eroan

Lanak Kultur Leioan aurkezteko beharra dago, norbera bertaratz edo posta bidez helaraziz (Jose Ramon Aketxe plaza, 11. 48940 Leioa). Postaz bidalitako lanak ziziluz markatuta egotea beharrezkoa da, apirilaren 21eko data ipinita beranduenez.

Aurkezteko modua

Lanak hiruna kopian aurkeztea beharrezkoa da. Idazlanek izenburua edo izengoitia bakarrik eduki beharko dute, egilea identifikatzeko dezakeen xehetasun barik. Jatorrizkoagaz batera, kartazal itxian egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, helbidea, adina, telefonoa eta, edukiz gero, posta elektronikoa). Kartazalaren kanpoaldean idazlanaren izenburua edo izengoitia eta zein mailari dagokion ipiniko da.

Mailak

18 urtera arte; 19 urtetik 35 urtera; 36 urtetik 55 urtera; eta 56 urtetik gora.

Apirilaren 24an abiatuko dute Kontuleku, irakurketa familiengana hurreratzeko ekimena

Uribe Kostako neska-mutil txikiak Uzorioneko egon daitezke. Izan ere, datorren apirilaren 24tik aurrera, «magiaz beteriko gune berezi» eta berri bat izango dute Mankomunitateko bost herritan: Urdulizen, Sopelan, Plentzian, Lemoizen eta Barrikan. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak antolatu du Kontuleku izeneko egitasmo hori, irakurketa familiengana hurreratzeko eta familiartekoen harremana indartzeko helburuakaz. Hala, ahozko literaturan murgilduko dira dinamizatzaile baten laguntzaz. Jakinarazi dute lekukopurua mugatua dela. Horrenbestez, komeni da ahalik eta arinen izen-emaitea betetzea, nor bere herrian. Denera, 9 saio egingo dituzte, ekainaren 23ra arte. Kontuleku ahalik eta erosoan izateko, talde bi antolatuko dituzte, adinaren arabera: alde batetik, 3 eta 4 urte bitarteko umeen familiak, eta, bestetik, 5 eta 7 bitartekoak. ◀

info+: Uribekosta.eu / 688 654 773

Emakumeak Eszenan zikloa Areetan eskainiko dute domekan, *¡No nos llega!* antzezlanagaz

Domeka honetan, hilaren 9an, *¡No nos llega!* antzerki-komedia taularatuko dute Andrés Isasi musika-eskolan, Areetan. Obra 19:00etan hasiko da; sarrera 3 euroan eros daiteke. Xankore antzerki-talde amateurrek eskainiko du antzezlan, Emakumeak Eszenan zikloaren 11. edizioaren barruan. Gernika-Lumoko Emakide elkartearen barruan lanean dihardu Xankorek; daborduko oholtzaren gainean hamabi urteko eskarmentua dute. Mari Carmen Ortiz, Ana Ruiz, Mari Paz Beares, Mari Luz Soloatxi, Flori Trujillo eta Mila Artexe izango dira taularen gainean jardungo duten aktoreak. Zuzendaritza eta gidioa, berriz, Felipe Cuétararen ardura izango da. Jendar-teak bizi duen errealitate gordinaren eta pertsonen beharrezko gainean jorratu dute obra, umore onez: «kasu oso berezi baten inguruko epaiketaren gaineko» izango da emanaldia, antzerki-taldeak azaldu duenez. ◀

«Sexu-hezkuntzan hutsunea dago, umeek ez dakite oinarrizkoena»

Saioz saio sexu-heziketarako komikia aurkeztu du Saioa Hernández sexologo leioztarrak.

TESTUA: **IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA**
ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

Itzubaltzetako Romo eskolan behar egin ostean eutsi dio Hernándezek elkarrizketari. Berak idatzi ditu bere lehenengo komikiaren gidoiak; Eider Eibarregaz eta Xabier Lozanogaz sortu du *Saioz saio*.

Zelan sortu zenuten *Saioz saio*?

Orain dela 10-12 urte hasi ginen sexu-hezkuntzan, ez zegoen umeak behar egiteko materialik edo hutsuneak zeuden hezkuntza eta edukien aldetik. Beti izan dugu behar hori, eta, azkenean, pentsatu genuen: «guk egin beharko dugu». Horrela sortu zen.

Sexu-heziketaren alorrean, formakuntzarik eza sumatu duzue?

Bai. Ez da sexu-hezkuntzarik egiten; eskola batzuetan kontu puntualak egiten dira: programa laburrak eta ez adin guztiei begirakoak. Sexu-hezkuntza ikasgaitzat ipintzen ez den bitartean beti egongo da hutsune hori. Egia esanda, umeek ez dakizkitez oinarrizko kontu asko, ezta nerabeek edo gazteek ere. Sexu-hezkuntzan hutsune handia dago oro har.

Norengana zuzendu duzue komikia?

Gazteak dira protagonistak, 9 eta 12 urte bitartekoak; gurasoengana ere heldu gura genuen, baita adin horietako umeak behar egiten duen edozein profesionalengana ere. Umeen aldetik, 9 eta 14 urte bitartekoentzat da egokia. Batzuentzat komiki oso pornografikoa da; baina, ez da horrela... Ostera, beste batzuentzat umezeria da. Hamar urtegar, umeek oso jarrera ezberdinak dituzte komikiarekiko.

Zeintzuk dira komikiaren helburuak?

Gure gizartean sexua zer den oso nahastuta dago, korapilo handiak; «sexua» esaten baitiote edozein konturi: koitoxa egiteari, identitateari, turismo sexualari... Nahaste-borraste handia dago, korapilo eta txarto ulertze asko. Gure asmoa da kontzeptuak argitzea, ulerraraztea 'sexu' berba, kontzeptu bezala, eta badaukala zerkusia identitateagaz, neska eta muti-



Komikia dagoeneko agortu egin da; maiatzaren 17an argitaratuko dute osterera. Errespetuz elkartearen webgunetik jaitz daitezke PDF fitxategia.

la izateagaz; gure barnean ezaugarri maskulinoak eta femeninoak ditugula eta identitate hori sortzen doala, guk sortzen dugula. Adibidez, hori erotismotik desberdintzea gura izan dugu, eta praktika erotikotatik eta jolas denetatik. Garrantzitsuak dira horiek ere, baina beste kontu bat dira. Den-dengaz sortzen doa norberaren sexualitatea. Ulerrarazi gura dugu apur bat kontzeptu horiek ez direla sinonimoak eta bereiztea garrantzitsua dela.

Zeintzuk dira erabili dituzten gaiak?

Komikiaren edukirik garrantzitsuenak honako hauek dira: gorputza; ezaugarri intersexualak, bai gorputzarenak (fisikoki edozein pertsonak baditu ezaugarri femeninoak eta maskulinoak), baita intersexualitatea ere, ume transexualak badirelako; eta kulturaren sexu-markak, bizi garen gizartean neskek eta mutilak desberdintzen direlako: arropan, motxilan, estutxean, jolasetan... Gauza eta kontu asko desberdintzen direlako oraindino neskekentzat edo mutilentzat diren eta hori hausnartu beharrekoa da behintzat.

Motxila urdinak edo arrosak ikusten dira oraindino?

Bai; gainera, arrosak oso ikusgarriak dira, eta, mutilenak, «super Athletic». Adibidez, komikian agertzen dira irudi batzuk klasean egiten diren dina-

mika batzuen gainekoak: neska eta mutila euren artean arropa aldatzen. Hor ikusten da zelako estereotipoak eta zelako ideia daukaten beste sexualitatearen gainean, nahiz eta egunero ikusi eta jakin normal ibiltzen direla edo korrika egiten dutela ganoraz,

“ Ume batzuentzat komiki oso pornografikoa da hau, umezeria da beste batzuentzat ”

edo dena delakoa. Beraz, sexu-markak ere hausnartzen ditugu. Kontzeptu garrantzitsu bat da, gure kultura nolakoa den jakiteko. Gure matxismoak sexualitatean eta sexu-identitateetan ere eragina duelako.

Komikia zelan erabili beharra dago?

Guretzat garrantzitsua da alde aurretik azalpen batzuk ematea. Batez ere, azaltzeko kontu bat dela neska eta mutila izatea, eta beste kontu bat direla jolasak eta praktika erotikoak. Tutoreak, gurasoak, osabaren batek, edozein pertsonak umei aurretik azalpen horiek eman behar dizkie, komikia eskaini aurretik. Gero euren ikusiko eta hausnartuko dute zelako sexualitatea

daukaten pertsonaiek, ea neskek gus-tuko dituen neskek, edo agertzen den Laura jeloskorra den... Hausnar dezaten zelako izaerak eta zelako sentitzeko moduak dituzten marrazkiko umeek euren sexazio-prozesuan: aldatetak gorputzean, eta abarrak. Garrantzitsua da umeen galderari kasu egitea eta iritzia eman barik bideratzea, irudimena erabiliz. Sexualitatea etengabe aldatzen doa eta kontuak ezin dira zorroztasunez definitu; umeek hori ere ulertzea ona da: nolakoak garen aldatzen doala, desioa legez.

Umeek zelan hartu dute?

Gogotsu, labur egiten zaizkie 24 orrialdeak. Hainbat irudi ez dituzte oso ondo ulertzen; agertzen diren familiak ohi-koak ez direnean, adibidez. Galdetzen dute: «Baina hori zer da? Hiru gizon etxe batean?». Kostatzen zaie ulertzea nola bizi diren beste familia batzuetan, eta irudi batzuek aztoratu egiten dira. Adibidez, irudikatu dugu neska bat komunean, tanpoi bat sartzeko ahaleginean; oso pornografikoa iruditzen zaie, oso bortitza. Fantasia-momentuak ere badaude, beste pertsonak amets eginez, eta horri «perbertitua» esaten diote, halako nazkaz. Kontu morbosotzat jotzen dute. Horri buelta ematea litzateke lana, ohi daitezela halakoak ikusten. Eurentzat egindako marrazkiak dira. ◀



Zipi & Zape eta kapitainaren irla izango da euskaraz emango duten film bakarra. © EZAE

Egitaraua

Apirilak 18, martitzena

Peter y el dragón, gaztelaniaz.

Apirilak 19, eguaztena

Zipi & Zape eta kapitainaren irla, euskaraz.

Apirilak 20, eguena

Mi amigo el gigante, gaztelaniaz.

Apirilak 21, barikua

Angry Birds, la película, gaztelaniaz.

Apirilak 22, zapatua

El libro de la selva, gaztelaniaz.

Areetako musika-eskolan izango dira saio denak, 17:00etan. Sarrera: 2,10 euro.



Branka

JANIRE
ENZUNZA LANDA
Filologoa eta irakaslea

Ika, ika, ika, badoa 20. Korrika!

L ehenengo Korrikatik 37 urte pasau dira, eta urteotan hainbat mezu bialdu deus-kuez kantuen bidez.

1980an Xabier Amurizak bertoratu eban «batzuk dira euskaldunak, besteak euskaldunak, hizkuntzaren jatorria ez duguna galdu nahi; odoletik baino, hortik gara gehiago anai». Urte bi beluago Akelarrek kantau eban «Korrikan, Korrikan, Korrikan, sartu hadi Korrikan; Korrikan, Korrikan, euskararen onetan». Hurrengo urtean, Egan taldearen kritikea izan zan: «alferrikan da ikastoletan hizkuntza bat ikastea, gero kalean, geure artean, inoiz egiten ez bada».

1985ean L. Aburuzak bertso bidez gogoratu euskun «baldin bazara morroi edo nagusia, berdin Euskadin edo kanpoan hazia, hemen ondo hartzen da datorren guztia; Korrika hau baitugu kolorez nahasia». Zortzi urte pasauta, Tapiak eta Leturiak «euskararen bizitzaren geroaren atzetik, hau da gure maratokia; euskararen bizitzaren geroaren atzetik, hau da gure arrazoa» plazaratu eben.

1995ean Kepa Junkera eta Alex Sarduiren aholkua izan zan: «hona aukera, jalgi hadi euskaraz, laga erdara, bizi ganoraz; ez egin galde gu zenbat lagun ote, hirekin asko izan gaitzke». Hamalau urteren ostean, Betagarrik halan animau ginduzan: «kantatu dezagun, ongi etorri, lagun! Euskara herrira zure herrira, zatozena!». 2011n Gosek «pausoz pauso, gelditu barik, pausoz pauso, maitatu, ari; pausoz pauso, euskal-kari!» aldarrikatu eban.

Orain dala bost urte, Esne Beltzak gogoratu euskun ekimena plurala dala: «elkar entzunez eta ulertzeraz, bagoaz korrika! Euskara emanda elkar bizitzera». Eta atzo «hizkuntzaren malabaristak, akrobatak, trapezistak, herri honen ilusionistak bidera atera gara, mundura atera gara, herriz herri igaroko gara!» kantetan ibi-gara. ◀

Umeei begirako bost film

Haur Zinema Jardunaldien 34. edizioa antolatuko du Getxoko Kultur Etxeak, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan, apirilaren 18tik 22ra arte.

Gaztetxoek zinemaz gozatzea aukeran izango dute hilaren 18tik 22ra bitartean; izan ere, Haur Zine Jardunaldien 34. edizioa antolatuko du Getxoko Kultur Etxeak, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan, Aste Santuko eskola-oporraldia aprobetxatuz. Bost pelikula eskainiko dituzte, guztira; horien arteko bakarra izango da euskaraz. Emanaldi

denak 17:00etan hasiko dira, eta saio bakoitzeko 2,10 euro ordaindu beharko dituzte ikusleek.

Apirilaren 18an hasiko dira jardunaldiak, martitzenean; *Peter y el dragón* pelikula proiektatuko dute egun horretan. Disneyren *Pedro y el dragón Elliot* film luze ezagunaren bertso berria da. Biharamunean, eguaztenean, *Zipi & Zape eta kapitainaren*

irla euskarazko filma proiektatuko dute. Eguenean, berriz, Steven Spielberg zinegile estatubatuarren azkeneko lanaz gozatu ahal izango dute neska-mutiek: *Mi amigo el gigante* filma egongo da ikusgai. Bestalde, barikuan, *Angry Birds* animaziozko filmaren txanda izango da; umeentzako bideo-joko ospetsuen pertsonailetan oinarrituta dago pelikula hori. Zikloa amaitzeko, *El libro de la selva* ikusi ahal izango dute umeek. Disneyren pelikula ospetsuaren moldaketa berria da azken hori; Rudyard Kipling-en kontakizunean oinarrituta dago. ◀

Hitza emanda



Garizuma

Kristau onak gara gu,
zelan ba bestela!
Baina borondatea
hain dugu epela...
nahiz ta jakin apaizek
esaten dutela,
arraina jaten dugu,
ta gero okela!



DANIEL
DE MIGUEL
AVECILLA
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Txapeldunordeak, BBK Bertso Sariketean

Giro ederrean jokatu zuten Bertsolari Gazteen BBK Sariketaren finala, Bilboko BBK Aretan, martxoaren 31n; Uribe Kostako eta Busturialdeko taldeek abestu zuten. Eskualdeko neska-mutiek ahaleginu baziren ere, Busturialdeko taldea izan zen puntu gehiago batu zituen, eta horiek irabazi zuten aurtengo txapela. Uribe Kostak 359.50 puntu lortu zituen; Busturialdeak, osteraz, 380.50 puntu. Finaleko Bizkaiera Onenaren saria ere Busturialdeko batek jaso zuen, Ibai Amillategi gernikarrak, eta Iratxe Ibarra bertsolariak eman zion.

Aurtengo txapelketa berezia izan da: 25 urte bete ditu Bertsolari Gazteen BBK Sariketak. Hori ospatzeko, Iratxe Ibarren bertso jarriak kantatu zituen publikoak, bertsolariaren beraren eta Eire Larrea gitarrak-jolearen laguntzagaz. Ibarrek BBK sariketaren lehenengo edizioan parte hartu zuen, baita irabazi ere, Lea-Artibaiko taldekideakaz



© BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA

batera. Bizitako esperientziari ipini zizkion bertsoak Ibarrek, eta sariketa sortu zuten Jon Lopategiri eta Joserra Bilbaori eman zizkien eskerrak.

Dena dela, finaleko benetako protagonistak parte hartu zuten hamabi bertsolariak izan ziren. Uribe Kostari dagokionez, honako hauek: 18 urtera artekoetan, Irene Ezkurrak, Aritz Landetak eta Unai Mendiburuk kantatu zuten; 24 urtera artekoetan, berriz, Inazio Vidalek, Kerman Díazek eta Paule Loizagak parte hartu zuten. ◀



Mendi-bira, Leioan

Mendi-astearen barruan, Elkartearen Eguna ere antolatuko du Leioa Mendi Taldeak, apirilaren 30ean, Bizkargiraino igoz. © BILBAO MENDI FILM FESTIVAL

Mendiaren inguruko filmik onenak Leioan ikusi ahal izango dira, hilaren amaieran. Bilbao Mendi Film Festivaleko sei pelikula erakutsiko dituzte Kultur Leioan.

Joan den urte amaieran egin zen Bizkaiko hiriburuan Bilbao Mendi Film Festivala (BMFF), bederatzigarrenez. Zinema-jaialdi horrek eskainitako 47 filmez eta hamaika jardueraz gozatu zuten 9.100 mendizale inguruk. Eta orain, Bilbon proiektatutako film onenatariko batzuk ikusteko aukera izango dute Leioan jai-

dia galdu zutenek; emango dituzten filmen arteko batzuk saritutakoak dira gainera. Hilaren 26an eta 27an hiruna film emango dituzte Kultur Leioako auditoriumean, 19:30etik aurrera. Film denak euskaraz jarraitu ahal izango dira, azpittitulu bidez. Saio bakoitzeko sarrera 3 euroan erosi ahal izango da; egun biko bonua, berriz, 5 eu-

roan. Ekimena Kultur Leioak eta Leioa Mendi Taldeak bultzatu dute, eta mendi-talde leioztarrak antolatuko duen mendi-astearen barruan kokatzen da.

Apirilaren 26an, *Boys in the bugs* (Eskalada-film onena BMFFn), *Dodo's delight* (kirol- eta abentura-film onena) eta *Blocheads* ikusi ahal izango dira. Hurrengo egunean, honako filmak emango dituzte: *Annapurna III. Unclimbed*, *Freedom under load* (film onenaren eguzki-lorea irabazi zuen Bilbon) eta *Jean Troilet, toujours aventurier* (Ikusleen Saria). Eguzki-lorea

irabazi zuen *Freedom under load* film eslovakiarrak Tatra mendietako zamaketarien historia ekarri du zinema-aretoetara; Polonia eta Eslovakiako mugan, Karpatoetan, daude Tatra mendiak. Bertoko zamaketarien azken belaunaldiaren gaineko lana da. Pavol Barabas zuzendariak 58 minutuan kontatu du zergatik hautatu zuten bizimodu hori, zergatik jarraitzen duten Europako azken mohikanoak izaten. Barabasek hausnarketa zabala utzi du, bakoitzak soinean daroan zamaren gainean ere beste zerbait topa dezan. ◀

Zapatuan herri-txangoa egingo dute Berangon

Apirilaren 7a Osasunaren Nazioarteko Eguna izanda, horren harira eskualdean hainbat jarduera antolatu dituzte Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak. Hurrengo izango da, herri-txango bat egingo dute, Berangon, goizeko 10:30ean. Nagusien etxetik irtengo dira parte-hartzaileak eta, 3,6 kilometroko ibilbidea osatu ostean, leku bereraino helduko dira. Antolatzaileek azaldu dutenez, ibilbidea «zailtasun baxukoa» izango da. Martxaren helburuak dira jarduer fisikoa, bizitza-modu osasungarriagoa eta aisialdi aktiboagoa bultzatzea,



Nagusien etxetik irtengo da txangoa.

herritar denen artean. Horrez gainera, Udalak eta Nagusien Etxeak elkarlanean dihardute, adineko biztanleek zahartze aktiboagoa izan dezaten, «bizimodu sedentarioa saihestuz», antolatzaileek azpimarratu dutenez. ◀

Iñaki Mentxaka da berriz boccia-ko txapelduna

Pasa den astean jokatu zen Altzagako kiroldegian Hego Euskal Herriko Boccia Txapelketa. Iñaki Mentxaka erandioztarra nagusitu zen, etxean, BC 4 mailan, orain arte zeukan titulua berretsiz. Mentxakaren atzean geratu ziren Carlos Loizaga eta José Ramón Orozko. Hirurak Fekoor taldeko kideak dira.

BC 5-Kiwi mailari dagokionez, Iñigo Mujika izan zen irabazlea. Adam taldeko kidearen atzean sailkatu ziren Isidoro Sánchez eta Imanol Elkoroberezibar, hurrenez hurren, Adembi eta Kemen taldeetako kideak. Boccia kirol paralinpikoa da eta banaka, binaka eta tal-



© BIZKAIKO KIROL EGOKITUAREN FEDERAZIOA

deka joka daiteke. Joko-eremua pista lauki bat da; lehiakideek pilotak bota behar dituzte pilota zuritik ahalik eta hurbilen; arerioen pilotak urruntzea ere baliagarria da. Hala, zehaztasuna eta estrategia batzen ditu joko horrek. ◀

Urduliz Eskubaloi Taldeak eta Uribe eskubaloi-eskolak Mungian egingo dute udako campusa. Bigarren txandan daborduko ez dago lekurik; lehenengoan, izen-ematea laster egitea aholkatu dute.

Eskubaloi-campusa, Uribe Butroen

Uribeko bederatzigarren eskubaloi-campusean 2003 eta 2008 bitartean jaiotako neska-mutilak apunta daitezke; Urdulizko eskubaloi-taldeak eta Uribe eskubaloi-eskolak antolatu dute ekimen hori, udarako. Campusa Mungiako Larramendi ikastolan eta inguruetan egingo dute. Bertan, gazteek eskubaloi-jokatuko dute, hondartzan zein pistan, begiraleakaz zein eliteko jokalariekaz; horiekaz berba egitea ere aukeran izango dute. Gainera, tailerrak, gaubelak, ur-jarduerak eta kanpoko

jokoak egingo dituzte, besteak beste.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, campusaren bigarren txanda itxita dago, Uribeko campusaren izen-ematea zabaldu eta egun batzuetan 90 lagun baino gehiago apuntatu zirelako eta eskaintzen zuten leku-kopurua bete egin zutelako. Hala, norbaitek atzera egingo balu bakarrik onartuko lituzkete partaide berriak txanda horretan, itzarote-zerrendatik hartuta; uztailearen 3tik 9ra. 1999 eta 2004 bitartean jaiotakoentzat da bigarren aste hori. Lehenengoan, oster, orain-



Hurrengo urtean 10. campusa egingo du Urduliz Eskubaloi Taldeak. © BERANGO ESKUBALOIA

dino parte hartu daiteke. Txanda hori ekainaren 24tik 30era egingo dute, eta bertan 2003 eta 2008 (biak barne) bitartean jaiotakoek parte hartu ahal izango dute.

Izen-ematea

Leku-kopurua mugatua denez, inskripzioak heltzen diren ordenan banatuko dira. Hori dela eta, izen-ematearen fitxa ahalik eta lasterren betetzera deitu du Urduliz Eskubaloi Taldeak. Inskripzioa klubeko webgunean egin daiteke. Elkarrekin erreserba baiezta-

tu ostean, parte-hartzaileek 380 euroko diru-sarrera egin beharko dute Urdulizko eskubaloi-taldearen kontuan, kirolariaren izen-abizenak zehaztuz. Ostean, izen-ematearen orria eta gurasoen baimena bete, eta klubera bidaltzea beharrezkoa da. Tramite horiek egiteko epea bost egunekoa da, ez dutelako lekurik gordeko ondoren eginez gero. Uribe eskubaloi-eskolak dena ondo dagoela ziurtatu, eta campuseko argibideak bidaliko ditu posta elektronikoz, fitxan emandako helbidera. ◀

info+: campusbase@urduliz.com / 692 705 161

Bizkaiko sarietan izango da Leioa Waterpolo

Leioa Waterpolok izendapen bi jaso ditu 2017ko Bizkaia Kirolak sarietan. Klub leioztarrak iragarri duenez, sari bi irabaz ditzake: talde-kirolaren saria eta oinarri-entrenatzaile onenarena. Lehenengo sariaren atalean izendatutakoa emakumezkoen gazteen eta kadeteen taldea da; Euskal Herriko gazte- eta kadete-txapelketak irabazi zituzten leioztarrek pasa den denboraldian. Horrez gainera, senior-taldeari lagundu zioten, Espainiako Lehenengo mailan hirugarren postua lortzen. Bigarrenen, Josu Barrenetxea eta Jon López dira hautagaiak. Hilaren 10ean egingo dute Biz-



Kadete eta gazteen taldea. © LEIOA WATERPOLO

kaia Kirolak sarietako gala, Bilboko Bizkaia frontoian; horrenbestez, datorren astelehenean bertan jakingo dugu Leioa Waterpolok edo Uribe Kostako beste klub edo kirolariaren batek sariaren bat irabazi duen. ◀

Galea Olatu Handien Zirkuitutik atera da

Munduko Surf Ligak (WSL) antolatutako Olatu Handien Zirkuitutik (BWT) kanpo geratu da Galeako olatu handien txapelketa, hala jakinarazi dute Getxoko probaren antolatzaileek. «Zirkuitutik at geratzen da baina azken hamarkadan egin duen bezala, aurrera jarraituko du nazioarteko olatu handien txapelketa bezala», azaldu dute antolakuntza-iturriek. Proba bigarren urtez segidan bertan behera geratu ostean, txapelketaren zuzendaritzak «hastapenetara bueltatzeko erabakia hartu zuen», Getxoko udaletxean egindako bileran. Hala, «WSL zirkuitutik kanpo» kokatu



«Antolakuntza-independentzia» lehenetsi dute. zen; aurrerantzean, olatu handien nazioarteko txapelketa izango da, gonbidapen bidezkoa. Ez da edozein txapelketa izango, bizirik segitzen duen Europako zaharrena da, 10 urte baino gehiagoko antzinatasunagaz. ◀

SARTU GURE
WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



cianoplan
GLOBAL PARTNER

Javier Otxoa klasika, berehala



Burua babesteko kaskoa derrigorrezkoa dela oroitarazi du Punta Galeak. © FOTO SAMAR - PUNTA GALEA

Datorren apirilaren 29an, zapatuan, Javier Otxoa klasika antolatuko du Punta Galea txirrindulari-elkarteak. Ohi legez, zikloturistentzako txango horren bidez, Javier Otxoa txirrindulariari gorazarre egingo dio klub getxoztarrak ibilbidearen 32. edizioan; Randonnée Punta Galea klasika moduan ere eza-guna da proba, 2005ean Otxoari eskaini aurretik hori zelako izen ofiziala.

Daborduko, aurretiko inskripzioa egin daiteke, Punta Galearen webgunean, hilaren 27ra arte. Izen-ematea behin betikoa izan dadin, ordainketa egitea beharrezkoa da. Klubak azaldu duenez, federatuek 20 euro ordainduko beharko dituzte; federatuta ez dau-

denek, 30 euro. Aurretiko izen-ematea egingo dutenen artean zenbait opari zozkatuko ditu Punta Galeak. Dortsalak probaren egunean bertan hartuko dituzte, goizeko 07:30etik aurrera, Getxoko Andra Mari kiroldegian, ordainagiria erakutsi ostean.

Ibilbidea azken urteotako berbera izango da: Andra Mari kiroldegitik aterako dira txirrindulariak, goizeko 09:00etan; Aretxabala, Sollube eta Andra Mari atzean utzi eta 101 kilometro bete ostean, Getxoko Andra Mari kiroldegiraino bueltatuko dira. Javier Otxoa txirrindulari berangoztarra 2001ean harrapatu zuen auto batek; ordutik hona kirol paralinpikoan jardun du. ◀

izen-ematea: Puntagalea.com

Pedalei eragiteko prest daude Punta Galeakoak

Denboraldi berriko aurkezpena egin zuen Punta Galea txirrindulari-elkarteak pasa den barikuan, Faturan. Ekitaldian, elkartearen maila denak aurkeztu zituen, baita txirrindulari-eskolako neska-mutilak ere. Hala, denboraldi honetan, orde-

kariak izango dituzte honako lehiaketan: kadeteetan, juniorretan eta elite-23 urtez azpikoetan. Horiei batu zitzaizkien betanoen taldea eta zikloturistak. Aurten elite-23 urtez azpikoek Duranguesa taldeagaz bat egingo dute, Eiser-Hirumet maillotagaz. ◀



Denera, 72 txirrindularik parte hartuko dute lehiaketetan.

Mendi-txirrindulariak, Akarlandako zirkuituan

Erandioko Udalaren XII. Mountain Bike Sari Nagusia jokatu da domeka honetan, hilaren 9an. Proba sortu zenetik egin legez, Unión Ciclista Erandio txirrindularitza-elkarteak Akarlandako parkean antolatuko du lasterketa aurten ere. Goizeko 11:00etan abiatuko da Euskadiko Ope-neko hirugarren proba hori. Zirkuitua guztiz gorabeheratsua da, eza-guna ezaugarri hori dela eta, txirrindularien hankek ezin dute atsedetik hartu une batez ere ez, gorako eta beherako aldapa handiak dituelako. Zirkuituak sei kilometro ditu, 250 metroko desnibel positiboagaz. Horri bost bira eman



© UNIÓN CICLISTA ERANDIO

beharko dizkiote elite zein 23 urtez azpiko mailetakoek. Master 30ekoek, ordea, lau bider bete beharko dute ibilbidea. Emakumezkoek, Master 40 eta gazte-mailetakoek hiru bira emango dituzte; kadeteek, ostera, bi. ◀

Erandio-Erandio klasika zikloturista ez da egingo

Azken 24 urteotan apiril-maiatz aldera egin izan den Erandio-Erandio martxa zikloturistak ez du beteko 25. urteurrena. Erandioko Txirrindulari Elkarteak azaldu duenez, «erabat ezberdina den proiektu berri bati ekitea erabaki dugu; egitasmo hori paregabeko antolakuntza-errika izango da gure klubarentzat. Hala, Erandio-Erandio klasika zikloturista ez da egingo». Zehaztu duenez, elkartearen jarduera berria triatloi bat izango da: «antolakuntza-errika ezberdin horrek gogobetetzen gaitu, aurreko martxa antolatzen genuenean baino are gehiago; irailean egingo



© ERANDIOKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

dugu Erandioko lehenengo triatloia, BilbaoTrigaz elkarlanean. Bertan, modalitate horretako 200 kirolarik baino gehiagok parte hartuko dute», aurreratu dute Erandioko Txirrindulari Elkarteak. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK
AINGARA
Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

Miren Dobaran Urrutia berangoztarrak ordezkatu zuen Patxi Baztarrika, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan, 2016ko abenduan; Euskara Sustatzeko zuzendaria izan zen urtebetez Dobaran, 2008an, Bizkaiko Foru Aldundira beharrera joan aurretik. Berangoko alkatea ere izan zen Dobaran, 2000tik 2007ra artean. Euskal Filologian lizentziaduna da eta itzultzaile-ikasketak dauzka. Horrez gainera, euskara irakaslea izan da urte askotan, ikastoletan zein euskaltegietan.

«Euskalgintzagaz elkarlanean gabiltza euskara kalean egon dadin bermatzeko»



TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Berangoko alkatea izan zinen 2000tik 2007ra arte. Zeintzuk dira garai horretatik daukazun oroitzapen atseginenak?

Orduan ikasi nuen entzuten; izan ere, egunero, 24 orduz, auzotarren zerbitzura egotea suposatzen du alkatea izateak. Esperientzia polita izan zen; sasoi horretan hasi ginen plangintza estrategikoakaz. Bestalde, egia esateko, esperientzia handiegia izan barik, jendea udal-erabakietan parte hartzen hasi zen. Gauza asko egin genituen...

Eta une gaitzik bizi izan zenuen?

Bai. Orduko egoera politikoa ez zen oso atsegina; gaur egungo egoerak ez dauka zerikusirik garai horretan bizi genuenagaz. Hala ere, gai izan ginen adostasunetara heltzeko; herritarrentzat mesedegariak izan ziren proiektu asko aurrera atera genituen. Gaur egun, orduan martxan ipini genituen egitasmoen emaitzak ikus daitezke; XXI. mendera ekarri genuen Berango.

Gaur egun, zelan ikusten duzu Berango?

Ondo ikusten dut. Bertoko gazteria oso dinamikoa da; horrez gainera, modan dagoen herri bat da. Etxebizitza sozialak eraikitzeak aukerak egon dira eta, oraindino, horrelako etxeak egiten dabilta. Horri esker, apurka-apurka, gazte asko joan da bertara bizitzera. Bitartean, bere garaian, aurrerapauso handiak eman ziren gizarte-kohesioan. Berangoztarrek diotenaren arabera, bizi-kalitatea ere ona da.

Ostean, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaria izan zinen. Zeintzuk izan ziren jorratutako jardunbide nagusiak?

Eusko Jaurlaritzara 2008an heldu nintzen arren, laster hartu nuen Bilborako bidea; 2013ra arte izan nintzen Aldundiko Euskara zuzendaria. Bertan, euskararen erabileran eragitea zen garrantzitsua.

“Helduen eskolak doakoak izan daitezen gura dugu; dirua ezin daiteke aitzakia izan, euskara-ikasketak alde batera uzteko”

Apurka-apurka goaz euskalduntze-prozesuan; baina, egia da, oraindino ere badagoela egiteko asko. Horregatik, Eusko Jaurlaritzan ere hori da gure lehentasunetako bat. Eskolari esker ume asko euskaldundu dira; baina, oraindino, helduen euskalduntze-prozesuan lan handia dago egiteko. Hortik aurrera, erabilerarako jauzia egitea litzateke hurrengo pausoa.

Baldintza egokiak daude jauzi hori emateko?

Momentu honetan badago masa kritiko nahikoa erabileran eragiteko. Bizkaian, askotan, gatzagoa iza-

ten da erabilerara bideratutako egitasmoak aurrera ateratzea: erdaldunez inguratuta egoteaz gainera, gure perfila urbanoagoa delako. Horregatik guzti-gatik, aukera gutxiago izaten dituzte euskal hiztunek euskara erabiltzeko. Bizkaiko Foru Aldundian nengoenen, horretarako aukerak sortzen ibili ginen, euskalgintzagaz batera.

Irakaskuntzan jardun duzu. Hori lagungarria da Hizkuntza Politikari ekiteko?

Bai. Izan ere, erronka soziolinguistikoa daukagu irakasleok: umeak euskalduntzea da gure ardura nagusia. Horrek argi adierazten du eskoletan eta ikastoletan egiten den lana oso garrantzitsua dela, batez ere B eta D ereduetan. Baina, aldi berean, eskolak dena ezin duela egin konturatzeko balio digu. Daborduko asko egiten du: eskolan dabiltazen umeek ez daukate arazorik euskaraz moldatzeko. Bestalde, aisialdiko jardueretan ere sustatzen da euskara; batez ere eskolaz kanpoko jardueren bitartez. Hala ere, hezkuntza-sistemak mugak ere badauzka. Pentsatzen bagenuen eskolak salbatuko gintuela... Argi ikus daiteke ez dela nahikoa. Umeen euskalduntze-prozesuan beste guztiok parte hartu behar dugu: administrazio publikoek ardura handia daukate, berbarako, euskararen erabilerara sustatzeko jarduerak antolatze orduan. Esaterako, Getxoko Udalak aisialdian ipintzen du indar handien. Horrez gainera, gurasoen inplikazioa guztiz beharrezkoa da; gure seme-alabentzat jarraitu beharreko eredia gara aita-amok. Baina, umeen



euskalduntzea ez da bakarrik hezkuntza-sistemaren, administrazio publikoen eta gurasoon ardura; herritar denon lana da gure seme-alabak euskal hiztun bihurtzea. Eskolaren alde esan behar dut lan oso polita egiten ari direla: metodologietan aldaketak egiten dabilta leku askotan; hori mesedegarria izango da euskararentzat. Ez da gauza bera ume bat entzuten bakarrik egotea ikasgelan edo parte hartzen eta ahozotasuna lantzen egotea. Horri esker, aldaketa handiak igarriko dira hurrengo urteetan, euskararen mesedetan.

Patxi Baztarrika ordezkatu duzu Eusko Jaurlaritzan. Bere lan-ildoak eta zureak bat datoz?

Bere lan-taldean egon nintzen, 2007an. Nire ustez, euskalgintza ere bat dator Baztarrikak egindako hausnarketagaz; administrazio publikoko eta euskalgintzako eragileak oso hurbil gaude, diagnostikoei dagokienez. Bere lan-taldean erabileran eragiten jardun genuen; eta, orain, bide horretatik jarraitu behar dugula uste dut. Bestalde, egia da, belaunaldi-aldaketa bat egon dela, hau da, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Saileko taldekide gehienok ikastolan ikasi dugu, D ereduari; eta unibertsitatean ere euskaraz egin ditugu ikasketak. Argi eta garbi, ikuspegi-aldaketa bat dakar horrek. Gure estiloagaz, baina, ildo berbera jorratuko dugu: iparra erabileran ipinita eta, batez ere, Bizkaian eraginez. Erronka nagusiak lurralde horretan eta Bilbon egiteko dauzkagu.

Bide batez, zeintzuk dira zuen lan-ildo nagusiak?

Helduen euskalduntzean ahalegin handia egin behar dugu oraindino. Ez dadila dirua aitzakia izan helduek euskara ikas ez dezaten. Agintaldi honetan, B2 titulura arte zabaldu gura dugu euskara-eskolak doakoak izatea. Daborduko hasi gara administrazio ezberdinen arteko bilerak egiten; une honetan, po-

“ Eskolak neska-mutil asko euskaldundu ditu; baina, euskararen erabileran egiteko asko dago oraindino ”

sible da hori egitea herri askotan. Hala ere, saiatuko gara sistema bat adosten.

Bestalde, gazteak dira erabileraren aldeko jauzi hori egin behar dutenak. Eskolak neska-mutil asko euskaldundu ditu; baina, badakigu erabileran oraindik badagoela asko egiteko. Gazteei produktu erakarriak eskaintzeko kapaz izan behar dugu; astialdia izango da gure lan-tresna. Besteak beste, azterlan bat egin gura dugu adin horretako jendeagaz: udaleku batzuetan batuko ditugu euskaraz bizi diren eta euskaldun berriak diren neska-mutilak, erabileran-ohitura horietan eragiten kapaz garen edo ez ikusteko.

Horrez gainera, egoera berria daukagu orain: euskararen hiru lurraldeetan aukera itzelak egongo dira gauza asko komunean egiteko; erakunde ezberdinei zor zaien errespetua zainduz, noski. Baina, beharrezkoa da praktika onak elkartrukatzen ahallegintza eta beste hainbat programa adosten saiatzea, Iparraldeagaz eta Nafarroagaz.

Azkenik, hizkuntza-eskubideak bermatu gura ditugu. Erakunde publikoetan inbertsio handia egiten gabiltza hizkuntza-eskakizunekin eta funtzionarioak euskalduntzen. Herritarrek eskubidea daukate euskara edo gaztelania erabiltzeko, eta horretan aurrerapausoak ematea beharrezkoa da.

Kale-erabileran jarduteko zelako garrantzia daukate euskalgintzako eragileak?

Euskalgintzako eragileak eta euskara elkarteak ezinbestekoak dira. Eusko Jaurlaritzaren garen aldetik, guk ardura batzuk ditugu Hizkuntza Politika diseinatzeke orduan; baina, ez dut ikusten ezer egin ahal dugunik euskalgintza barik. Gu ezin gara leku askotara heldu; euskalgintza, ostera, kalean dago. Gure aurrekontuetan ikus daiteke hau ez dela zorakeria bat; euskalgintzako eragileak daude diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeen artean. Gainera, aitortza zor diegu aipatutako eragileei; hauteskunde demokratiko batzuen ostean, Hizkuntza Politikaren diseinua guri egokitu arren, hainbat elkarregaz gabiltza lanean eta horrela izan behar du. ◀

Gaur egun zentzuzkoa da A ereduaren mantentzea?

Berez, desagertzea doa A ereduari; gurasoek eduki dute hori hiltzeko aukera. Momentu batean D ereduari inposatu izan bagenu, ez dakit nik une honetan egoera berdina izango litzatekeen. Aita-amak zuhurrak izan dira eta, apurka-apurka, euskarari atxikimendua adierazi diote. Urte batzuen buruan desagertuko da A ereduari; ez dute aukeratuko, azken batean, gurasoen apustua eleaniztasunaren aldekoa delako. D ereduari da hori bermatzen duena.

Leioan eta Getxon ditugu A ereduko Bizkaiko matrikulen erdiak.

Agian, ahalegin handiagoa egin beharko dugu; baina, hemen ere lortuko da egoerari buelta ematea. A ereduko ikastetxeetako arduradunak ere euskara indartzeko gogoz ikusten ditut.

Euskarazko hedabideei dagokienez, zeintzuk dira zuen helburuak edo asmoak?

Une honetan, hausnarketa-prozesu batean gaude, Hekimen euskal hedabideen elkarrengaz batera. Ondoriorik ez dugu atera oraindino; baina, oso argi daukagu tokian tokiko hedabide txikiak garrantzitsuak eta ezinbestekoak direla, herritarrengandik hurbilen dauden komunikabideak direlako. Horrez gainera, euskaldunak beharrezkoak ditugu; eta eskura eduki behar ditugu. Gure asmoa da ziurtatzea hedabide txiki horien finantziazioa bermatzea. Ez dakit zelan egingo dugun; baina, gutxienean egonkortasun bat eman gura diegu. Diru-laguntzen oraingo deialdiakaz, badakite zer izango duten hurrengo hiru urteotan. Horrek izan behar du bidea; ekonomikoki lasaitasun bat ematea beharrezkoa da, hedabideek euren plangintza estrategikoak aurrera eroan ditzaten. Proiektua hobetzeko eta herritarren gogoetara ahalik eta hoberen egokitzeko balio izango du horrek. ◀

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila ugariz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzaile eta partaide izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Producciones Serranori esker, Tia Fullerrekin apirilaren 23an eskainiko duen kontzerturako 3 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Sarrerak lortu gura badituzu, apirilaren 18a (martitzena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Apirileko saria

SARIA

Bi lagunentzako bazkaria Sopolako Urgitxieta jatetxean

Urgitxieta jatetxearen ekimenez, hilabete honetako sari hau zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean. Parte hartu apirilaren 30a baino lehenago.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bitartez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileekin harremanetan jartzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikitate helarazteko. Bestelako erabilpenik erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak nahi duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

+ Guardiako farmaziak, hilaren 7tik 26ra

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Barikuan eta zapatuan (hilaren 7an eta 22an), 09:00etatik aurrera, 24 orduz; zapatuan (8an), 09:00-14:00.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; zapatuan eta martitzenean (15ean eta 18an), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Angxane bidea, 1. 946 680 153. Zapatuan (hilaren 8an), 09:00etatik aurrera, 24 orduz; egueneko (20ko) 22:00etatik barikuko 09:00ak arte.

Erandio

ARRIOLA. Obieta, 40. ALTZAGA. 944 670 022. Astegunetan (hilaren 13an eta 14an), 09:00-22:00.

ARRUTIA. Obieta, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; zapatuan (8an), 09:00-14:00; zapatuan eta domekan (22an eta 23an), 09:00-22:00.

BERASATEGUI. Tartanga kalea, 5. ALTZAGA. 944 671 429. Astelehenean (hilaren 17an), 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuetan (hilaren 8 eta 22an), 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuetan (hilaren 8 eta 22an), 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuetan eta domekan (hilaren 8an, 9an, 15ean eta 16an), 09:00-22:00; zapatuan (22an), 09:00-14:00.

Getxo

LOBO. Makaleta etorbidea, 43. AIBOA. 944 308 286. Eguaztenean (hilaren 12an) eta zapatuan (22an), 09:00-22:00.

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Egunero, 22:00-09:00.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00.

BARRENECHEA. Alango, 7. ALGORTA. 944 600 043. Zapatuan (hilaren 15ean), 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Egunero (hilaren 7tik 8ra, 10etik 12ra, 15ean eta 18tik 26ra), 09:00-22:00.

MORON. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; zapatuetan, 10:00-22:00; domekan (16an), 09:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal kalea, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; zapatuan (15ean), 09:00-22:00; zapatuan (22an), 10:00-22:00;

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra

eta 18tik 26ra), 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan (hilaren 7tik 13ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; domekan (9an), 09:00-22:00; astelehenean (17an), 09:00-13:30.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuetan (hilaren 7tik 12ra, 15ean eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; domekan (9an), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuetan, 09:00-13:30; eguenean (hilaren 13an), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Astelehenean (hilaren 24an), 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Eguaztenean (19 eta 26an), 09:00-22:00.

SÁNCHEZ. Estartetxe kalea, 23. 944 800 802. Domekan (hilaren 9an), 09:00-22:00.

TIEMBLIO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Eguaztenean (hilaren 12an), martitzenean (18an) eta domekan (23an), 09:00-22:00.

RAMOS. Langileria, 92. LAMIAKO. 944 645 185. Zapatuan (hilaren 15ean), 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan (hilaren 7tik 13ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; zapatuan (8an eta 22an), 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; zapatuan (8an), 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Zapatuetan (hilaren 8 eta 15ean), 09:00-13:45; astelehenean (10ean), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; eguaztenean (19an), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013. Barikuan (hilaren 14an), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; eguaztenean eta astelehenean (12an eta 24an), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; domekan (23an), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andres, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 17tik 26ra), 09:00-22:00; astelehenean eta martitzenean (17an eta 25ean), 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; martitzenean eta barikuan (11n eta 21ean), 09:00etatik aurrera, 24 orduz; zapatuan (22an), 09:00-13:30.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan (hilaren 7tik 12ra eta 18tik 26ra), 09:00-22:00; domekan eta eguaztenean (16an eta 26an), 09:00etatik aurrera, 24 orduz





BAT

20. Korrikak Uribe Kostan biziarazi dizkigunak horiek denak.
 Eskerrik asko, suspertzeagatik! Gaur ere euskaraz bizitzeko
 sasoian egon gaitezen, arin ibili!

Ilusionista uribekostarren argazkiak handiago ikusteko eta jaisteko:

www.hiruka.eus

ZUK



Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua